

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Ez da xakea, aurrerabideak
galarazteko saioa baino ez **IÑAKI ALTUNA > 11**

KRONIKA DURANGON:

Euskara ikasle erretiratuak, inoiz
ez da berandu **> 12**

2015ko urtarrilaren 17a | VIII. urtea • 400. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ELITEA DAVOSERA, NEGOZIOAREKIN JARRAITZEKO

DATORREN ASTEAN EGINGO DA MUNDUKO
EKONOMIA FOROA, ELITE POLITIKOA ETA
EKONOMIKOA URTERO ELKARTZEN DITUEN
HITZORDUA. «MUNDUKO TESTUINGURU BERRIA»
LELOAREKIN EGINGO DUTE 140 HERRIALDE TAKO
GONBIDATUEK. **> 4** Jeff J. MITCHELL | THINKSTOCK

Munduko Ekonomia Foroak

Davosen du hitzordua 04

Ikusmira: Elurra ez da jolasteko,
egungo Ekialde Hurbilean 07

Bost urte geroago, Haitik ez du
lurrikaratik burua altxatu 08

Euskara ikasle erretiratuak: inoiz
ez da berandu 12

EHKolektiboa, agroekologia
bultzatzeko ahaleaginean 18

e.lkarrizketa: Beatriz Moral eta
Margaret Bullen 22

Txotx denboraldian, bertako
ekoizleen alde 26

Infraganti: Iñaki Uribesalgo 28



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Irriterapia ideologikoa, ispiluaren aurrean
- 10 **Ander Gortazar Balerdi:** Merkatuaren alde (eta kontra)
- 11 **Iñaki Altuna:** Ez da xakea, aurrerabideak galarazteko saioa baino ez
- 16 **Ainara Azpiazu «Axi»**
- 19 **Amaia Agirre:** Berreketa
- 19 **Koldo Sagasti:** Nahastu gabe
- 20 **Arantxa Urbe:** Hezkuntza-erreforma herri ez normalizatu batean
- 21 **Iker Barandiaran :** Kable batetik zintzilik
- 31 **Ana Arruarte Lasa:** MOOCen bidez jakintza mokora



{ datorrena } Iñaki Soto

Irriterapia ideologikoa, ispiluaren aurrean

A l Jazeera telebista katearen erredakzioan “Charlie Hebdo” agerkariaren harira eztabaida bizia izan dutela irakurri dut. Ez dira ez bakarrik izan. Gurean ere izan ditugu. Adibidez, “Charlie Hebdo”-koak «banda de capullos arrogantes e irresponsables» gisa definitu dituen norbaitek hemen, gutako askorentzat biktima izateak ez baititu kazetari horiek heroi bihurtu, are gutxiago eredu. Baina notizia zer den eta zer ez den ez dago horren arabera, berri askoren protagonistak halaxe baitira, «capullo» hutsak. “Charlie Hebdo”-k ez digu grazia egiten eta, ondorioz, ausia gutxiesteko joera dugu. Honelakoetan, gainera, argudioak sarri gure aurka erabiltzen diren ispilu hutsa izaten dira. Ziur naiz batek baino gehiagok «que se joda» pentsatu duela. Aste honetan sarri esango zuten hori bera guri buruz. Ez nau horrek kezkatzen, erreakzio gisa. Errealitatea ulertzeko eta aldatzeko ezgaitzen gaituen neurrian bai, ordea, kezkarria iruditzen zait.

Sarri auziak baloratzeko garaian jendeaz ahazten gara. Adibidez, aurreko astean Baionan milaka eta milaka euskal herritar bildu ziren. 20.000, zenbait iturriren arabera; asko, nolahi ere. Ez izan zalantzarik horietatik asko «capullo gabatxoak» izango zirela. Eta kazetari, «celebrity» eta agintari «capullo»-ez gaildi, herritar «capullo»-ekin eraiki beharko dugu herri ostia hau.

Irribarrea tresna iraultzaile gisa baliatu nahi bada, aurrean duguna erreflexuarekin distiratzear harago gure burua islatu behar dugu, autokritiko izan eta, sikiera lantzean behin, barre egin. Harrigarriro, oso jendarte ospindua bihurtu gara; euskal jendea arrazoa duenean ere haserre dago.

Honen guztiaren harira eta azkenaldian tertulietan izan ditudan bizipenengatik, Arnaldo Otegiaren lema oroitu naiz: «Egin irribarre, irabaztera goaz-eta». Lema horrek bi ibilbide posible ditu. Bata, orokorra eta epe luzekoa da, gizarte gisa, «win-win» eskeman oinarritua; eskubideen eszenatoki bat irekiz gero irabazteko aukera guztiak ditugulako, gure argudio eta proiektuak besteenak baino askoz hobeak direlako. Bestea, epe laburragokoa eta partikularra da, gurea, independentistona, norgehiagoka politikoaren botere-balantzan gu gainetik jarriko gaituen estrategia gisa ulertuta. Honek errelatoarekin du zerikusia.

Unionistek, baita zenbait abertzalek ere, gure benetako historiaren aurrean negazionismora jokatu badute, guk,

gure ardurak onartzearekin batera, beste aldetik ez baldin badago erantzun positiborik edo «feedback»-ik –alegia, paternalismorik gabe, denon artean eta norberak bere ardurak onartuz, guztion egiez osatutako egia ardatz izango duen kontakizun komun bat eraikitze asmo zintzorik izan ezean–, historikoki gaitzetsi dugun biktimen papera baliatu beharko dugula uste dut. Gure diskurtsoan historiaren indarra apaldu beharko dugu, memoria batez ere errekurso erretoriko gisa erabiliz. Are gehiago, iraganari buruz pentsatzen eta sentitzen dugunaz zer puntutaraino gezurra esan behar dugun ere baloratu beharko dugu. Eta orainaldiaren eta etorkizunaren ardatzak lehenetsi beharko ditugu. Bestela ere honela jokatu beharko genukeela uste dut, beti pentsatu izan baitut gure aukera bakarra etorkizun hobeago bat marraztetik datorrela, ez iragan loriatsu bat berreraikitze. Baina, aipatutako eszenatik, iraganarekiko axolagabekeria puntu hori zinismoraino eramane beharko dugu, agian. Besteez trufatu beharko gara, nolabait esateko, beraiek gutaz trufatzen diren bezala. Agian, jokabide zital baina efikaz horrekin, herri honen maila kultural eta ideologikoa are gehiago motelduko dugu, hori posible bada. Ondorio hau oso kontuan hartu behar da. Baina «fair play» identitario eta politikoari ateak irekiko dizkion eta guztiok irabazle aterako garen eszenatokiari ateak irekitzeko adostasunik ezean, gizartearen joera negargarriak baliatuko dituen estrategia zitala martxan jartzea baloratu beharko dugu, lehenago edo beranduago. Bals hau dantzatzeko gezurra menperatu behar da, edo gutxienez egiak soilik ez gaituela askatuko jakin behar dugu.

Ez dut etsi nahi, ez dut gizarte gisa atzera egiterik nahi. Maila pertsonalean, herria pobretuko duen marko bat eraikitzea baino nahiago dut zigorra jasan. Baina, kasu horretan ere, gure sufrimenduaren errentagarritasun politikoari begiratzen hasi beharko dugu. Gaur, orain, hemen, bortxatzen ari diren giza eskubideak gureak direlako. Hemen Javier Salutregi, Jose Luis Elkorro, Pablo Gorostiaga eta Murga anaiak direlako “Charlie Hebdo”, besteak beste.

Aurreko hitzak apokaliptikoegiak iruditu bazaizkizu, irakurle lagun hori, pentsa ezazu ispiluen jokoak horretara eramaten gaituela, era batean edo bestean. «Capullo»-en mailara jaitsi edo guztion maila igotzen ahaleginduko garen erabaki behar dugu. Eta nola egin asmatu, erdibidetik edo zuzenean eskemak hautsiz. Edonola ere, hobe irribarre batekin bada, nigandik hasita. •

Bals hau dantzatzeko gezurra menperatu behar da, edo gutxienez egiak soilik ez gaituela askatuko jakin

DAVOSEKO HITZORDUA

«Munduko testuinguru berria» lelopean egingo da Munduko Ekonomia Foroa

 **EKONOMIA** / joseangel.oria@gaur8.info

Datorren astean egingo da Suitzako Davosen Munduko Ekonomia Foroa, elite politikoa eta ekonomikoa urtero elkartzen dituen hitzordua. Inoiz baino esku-hartzaile gehiago izango du aurten, 2.500dik gora. «Munduko testuinguru berria» leloarekin egingo dute foroa 140 herrialdetatik iritsiko diren gonbidatuek.

Kapitalismoaren internazionala» deitu izan zaio Davoseko Foroa-ri, baita «abera- tsen arazoak konpontzeko aberatsen bilera», «boteretsuenen irudia hobetze- ko ekimena» eta «joera ekono- miko eta enpresarialak zehazte- ko lekua» ere. Brasilen ia urtero sortzen den eztabaidak (Lula le-

hen eta Dilma Rousseff orain ez- kerreko alderdi bateko aginta- riak izanda, Davosera joatea egokia ote den edo ez) pentsa- razten du munduko ekonomia merkatuaren parte izateko ezin- besteko baldintza dela Davosen egotea, eta herrialde hartako PT Langileen Alderdiak badirudi horixe uste duela.

45. foroko esku-hartzaileen zerrendan agintari ugari ageri

Davos Alpeetako herria blindatu egiten dute urtero segurtasun indarrek, manifestari ezerosoak urruti edukitzeko eta luxuzko instalazioetan beren negozioak lasai asko egiteko.

Fedor SELIVANOV | THINKSTOCK

dira; 300 inguru, antolatzaileen arabera. Horien artean, berro- geiren bat estatuburu eta gober- nuburu ere egongo dira. Nazio- arteko erakundeek, konpainia handienek, mundu akademiko- ak, gobernuz kanpoko erakun- deek eta hedabide jakin batzuek ere ordezkaritza izango dute Suitzako Alpeetako herrian. Aurten, gainera, Nobel saria ja- sotako hamalau pertsona ere bertan izango omen dira.

Sekulako jakinduria biltzen dute «munduko testuinguru be- rria» aztertzeko eta «gure garai- ko arazoei konponbidea aurki- tzen laguntzeko», Klaus Schwab Foroko sortzaile eta presidente- ak adierazi izan duenez. «Egun- go buru eta agintariek aurreka- ririk ez duten erronkei aurre egin behar diete, inoiz baino konplexuagoak direlako, sekula- ko abiaduran gertatzen direlako eta elkarri lotuta daudelako» esan zien kazetariei Schwab ira- kasleak orain astebate. «2015





Klaus Schwab Foroko sortzaile eta presidentea, joan den asteazkenean. Fabrice COFFRINI | AFP

Sekulako jakinduria biltzen dute «munduko testuinguru berria» aztertzeko eta «gure garaiko arazoei konponbidea aurkitzen laguntzeko», Klaus Schwabek adierazi duenez

Enpresariei dagokienez, Davosen elkartuko direnen heren bat AEBetakoak dira; beste horrenbeste, Europakoak; eta gainerakoak, «garapen bidean» dauden herrialdeetakoak

honetan, arazo horien artean, arrakasta osoz nabigatzeko moduak aurkitzea lehentasunezko kontua da lider guztientzat, ez hazkunde ekonomiko iraunkorra bermatzeko bakarrik, konfiantza berrezartzeko ere garrantzitsua da-eta».

Ban Ki-moon NBE Nazio Batuen Erakundeko idazkariak eskatuta, aurten Milurtekoko Garapen Helburuak ere aztertuko dituzte. NBEk berak ezarritako helburuak betetzeko epea aurten amaituko da eta hemendik aurrera zein helburu ezarri eta zer egin erabaki beharko dute orain agintariak. Horretaz ere ariko omen dira Davosen hilaren 21etik 24ra.

Klaus Schwabek joan den asteazkenean esan zuenez, gizadia bidegurutze batean dago une honetan. «Bide batek desintegrazio, gorroto eta fundamentalismora eramango gaitu, eta besteak, aldiz, elkartasuna eta kooperaziora». Parisen aurreko astean izandako atentatuek eta ondorengo manifestazioek bi bide horiek utzi dituzte agerian, sortzailearen iritziz.

Jim Yong Kim Munduko Bankuko presidentea, Eric Schmidt Google konpainiakoa, Roberto Egidio Setubal Itau Unibanco Brasileko bankuko zuzendaria eta Winnie Byanyima Oxfam International gobernuz kanpoko erakundeko burua ageri dira esku-hartzaileen artean.

Enpresariei dagokienez, Davosen elkartuko direnen heren bat AEBetakoak dira; beste horrenbeste, Europakoak; eta gainerakoak, «garapen bidean» dauden herrialdeetakoak. Nabarmentzeko modukoa da Asiako hegoekialdeko herrialdeetako orde-

karitza. Baita Turkiatik eta Nigeriatik joango dena ere. Gainera, aurten inoiz baino sektore ekonomiko gehiago egongo dira Davosen ordezkakuta: nekazaritza, telekomunikazioak, robotika... Internet eta sare sozialak ahaztu gabe.

TXINAKO LEHEN MINISTROA

Agintariei dagokienez, AEBek, Japoniak eta Errusiak goi mailako ordezkariak bidaliko dituzte luxuzko eski estaziora. Txinak ere bai, Li Keqiang lehen ministroa bertan izango baita. Zhang Wenkui Garapena Ikeritzeko Zentroko ikerlariak zera adierazi dio New Yorken egoitza duen Bloomberg hedabideari: «2014an atzerriko enpresa eta inbertitzaile batzuek zalantzan ipini zuten gure merkatuaren irekiera. Li *premier*-a horrelako foro ekonomiko garrantzitsu batean kezka eta zalantza horiek uxatzen saiatuko da eta Txinak erreforma gehiago egiteko eta gehiago irekitzeko duen konpromisoa azalduko du».

2009an Wen Jiabao garaiko Txinako lehen ministroa joan zen forora, munduko ekonomia sustatzeko 585 milioi euroko inbertsioak iragarri ondoren.

Txinan bertan ez diote garrantzi handirik eman Davosera joateko erabakiari. Xinhua berri agentzia ofizialak idatzi du lehen ministroaren bidaiaren berri Hong Lei Atzerri Ministerio-ko eledunak eman zuela, «Pekinen eskainitako ohiko prentsaurreko batean». Lik Suitzan egingo duena kontatu du agentziak, herrialde horretako agintariekin izango dituen harremanak nabarmenduz, ez Davoseko Foroa bera.

Latinoamerikatik joandako gonbidatuen kopuruak gora egin izan du azken urteotan, kontinenteak munduan gero eta garrantzi handiagoa duen adierazle. Aurten, Rousseff brasildarra joatekoa da, bere herrialdean zenbait «murrizketa prebentibo» egin ondoren. Begiraleek diote gerrillari ohia zerga politika berria abian jartzeko prest dagoela. Azken bolada honetan hartu dituen erabakiak ikusita, politika berri horrek ere aberatsenei egingo diela mese de pentsa daiteke, Rousseffi berari botoa emandako milioika lagun haserrerako.

Juan Manuel Santos Kolonbiako presidenteak eta Enrique Peña Nieto Mexikokoak jakinarazi dute aurten ez direla joango. Txilek aurreko ekitaldietara baino maila txikiagoko ordezkaritza bidaliko du Suitzara.

François Hollande frantses presidentea eta Angela Merkel Alemaniako kantzilerra bertan izango dira. Baita Poroshenko Ukrainako burua ere.

Antolatzaileen arabera, aurten aztertuko dituzten gaien artean azpimarratu behar da tentsio geopolitikoak gora egin izana, potentzia nagusiak taltza egiten ari baitira munduko hainbat tokitan. Moneta arazoak, klima aldaketaren ondorio sozial eta ekonomikoak (gai honen inguruan hitz egingo du Ollanta Humala Peruko presidentek), teknologia berrien zabaltzeak eragin dituen aldaketak eta ebola izurritea ere ageri dira aurtengo agendan (Ibrahim Boubaar Keita Gineako burua joango da).

Azertu beharreko beste gai batek oso ondo adierazten du Davosen elkartutakoen eta gainerako herritarren arteko alde ikaragarria. Milioika lagun krisi ekonomiko latza jasaten ari diren bitartean, luxuzko eski estaziokoek «krisiaren ondorengo ekonomiak dinamikoago, integratzaileago eta erresilientzia handiagoko nola bihurtu» eztabaidatuko dute. Batzuk krisitik bizirik nola atera ez dakitela, eta besteak, krisiaren ondorengo munduan negozio hobeak nola egin pentsatzen hasita!



Davoseko Foroaren aurka mobilizazio ugari egin izan dira. Irudikoa New Yorken egin zuten. Darren MCCOLLESTER | THINKSTOCK

KAPITALISMOAREN INTERNAZIONALA?

Lehen Internazionala langileak biltzeko Londresen 1864an sortu zen nazioarteko erakunde sozialista izan zen. Gizarteko pobreen arazoak konpontzen lagundu nahi zuen ekimena, beraz. Erakunde hori erreferentziatzat hartuta, Pablo Iglesias irakasle madrildarrak «kapitalismoaren internazionala» deitu zion orain urtebete Davoseko Foroari, La Tuerka Interneteko telebista saioan. Paralelismoari eutsiz gero, esan beharko da Davosen kapitalisten buruak elkartzen direla beren arazoak konpondu nahian. Ala pobreen arazoek kezkatuta joaten dira luxuzko eski estaziora, paradisu fiskalen erreinura?

Oso garbi du erantzuna Juan Mari Arregik, «Argia» aldizkarian iaz idatzi zuenez: «Politikariak, bankariak, finantzariak, enpresariak... denak batera egon dira Davosen, sistema kapitalistak ematen dizkien etekinak mantentzeko, ahalik eta kostu txikienarekin gainera. Kezkatu itxurak egin dituzte desberdintasunen eta gazteen langabeziaren aurrean, baina beraiek dira horien arduradun. Azkarrak dira oso, badakitelako desberdintasun eta

langabezia hori jasaten dutenek leherketa soziala eragin dezaketela. Horregatik diote neurriak hartu behar direla egoera horiek arintzeko».

Ezkerretik aztertuz gero, Davoseko hitzorduak ez du gizakion arazorik konpontzen laguntzen. Zentzu horretan, «ez du ezertarako balio», Pedro Montes ekonomialari espainolak esplikatu izan duenez: «Gizadiaren benetako arazoak konpontze aldera ez dute ezer aurreratuko». 2.500 laguneko bilera zabal batek ez dirudi lekurik egokiena gauza handiak erabakitzeke. Ezta pertsona horiek egingo dituzten beste 280 bilera txikiagoek ere. Baina, seguru asko, negozio ederrak egingo dituzte. «Seguru asko» idatzi behar, bertan benetan gertatzen denaren berri ez baitzaigu iristen herritar xumeoi. Ezkutukeria da Davoseko hitzorduaren ezaugarrietako bat, aberatsenek hain beharrezkoak dituzten paradisu fiskalen ezaugarri den moduan. Eta sekretismo hori apurtu nahi luketen manifestariak luxuzko eski estaziotik urruti edukitzen dituzte Foroaren antolatzaileek.

Herritarren arazoak konpontzeko balio ez duela onartuta ere, herritar horien egoeran inolako eraginik ez duela ezin da esan Davoseko Foroaz. Aberatsenen kezka batzuk azaltzen ditu, bertan izango diren ehunka teknikari eta adituek ondo apainduta. Eta pentsatzekoa da Suitzan hitz egindako gauza batzuk bederen geure bizitzetara ere iritsiko direla. Edonola ere, esaterako, klima aldaketaren inguruan agertu izan duten kezkak ez du esan nahi bertan egon diren konpainia multinazionalak gero beren jarduera egokitu dutenik, ingurumenean duten eragin kaltegarria murrizte aldera. Eta ezberdintasunaren inguruko kezkari buruz antzeko zerbait adierazi daiteke, Davosen gaia aipatu duten horiek gero zergarik ez ordaintzeko ahaleginak egiten baitituzte, baita arrakasta lortu ere: alde batetik, arazo batekin kezkatuta daudela dirudi, baina bestetik, arazo hori konpontzen lagunduko luketen baliabideak ukatzen dituzte. Eraitza: ezberdintasuna gero eta handiagoa eta arriskutsuagoa da, gero eta biolentoagoa.



Maya HAUTEFEUILLE | AFP



IKUSMIRA

ELURRA EZ DA JOLASTEKO, EGUNGO EKIALDE HURBILEAN

Geopolitikak horrenbeste sufrimendu eragin dien Ekialde Hurbileko herriak muturreko eguraldiaren erasoaldia jasaten ari dira aurtan. Unicef Nazio Batuen Haurren Laguntzarako Funtsak jakinarazi du herrialde horietako kanpalekuetan egoera negargarrian dauden milioi bat ume ingururi laguntza ematen hasia dela: be-

rokiak, mantak, berogailuak, dirua... iheslari bihurtzera behartutako haurrentzat. Gehienak bukatu gabeko eraikinetan eta baldintza penagarriko lekuetan bizi dira, eta horrela egin behar diete aurre zero azpiko tenperaturei, elurteei eta haize zakarrari. Gainera, elurrezko panpinak egiteko aukera, mundu guztiko umeek izaten dutena, debekatu egin nahi diete ustez jakintsuak diren gizon batzuek, Jainkoaren izenean. Al Munajjid Saudi Arabiako xekeak panpinak «gaitzetsi» egin ditu (horrela diote hedabideek), «lizunkeria eta erotismoa» sustatzen dituztelako. Behin egingo elurra, eta orduan ere arazoak besterik ez dituzte ikusten batzuek. joseangel.oria@gaur8.info

EZBEHAR GUZTIEN GELTOKIA

Bost urteren buruan, Haiti herrialdeak ez du lurrikaratik burua altxatzerik izan

Haitiko argazkiak ikusita atzo bertan izan zela dirudien arren, bost urte igaro dira dagoeneko Port-au-Prince hiriburua eta hainbat herri eta herrixka guztiz suntsitu zituen lurrikara izan zenetik.

Lurrikara izugarria izan zen 2010eko urtarrilaren 12an Haiti errotik kolpatu zuena. 300.000 hildako eragin zituen eta Ameriketako herrialderik txiroena zena hondakinen erreinu bihurtu zuen.

Mundua ikaratuta geratu zen hondamendi haren aurrean. Elkartasuna ere martxan jarri zen. Munduko gobernuek milaka milioiko laguntza agindu zuten, Mendebaldeko komunikabide dirudunenek ezbeharraren erdi-erditik kronika luze bezain negargarriak bidaltzen zituzten bitartean.

Diru-laguntzaren zati handienaren zain daude oraindik haitiarrak. Hori gutxi ez eta egoera gaiztotzeko, handik hilabete batzuetara kolera izurrite batek milaka biktima eragin zituen. Nork ekarri zuen izurrite hori? Nazio Batuetako kasko urdinek, jatorriz nepalдарrek. Ikerketa baten arabera, soldadu horiek komuneko hondakinak zuzenean erre kara botatzen zituzten eta horrek eragin zuen 150 urteren buruan Haitin berriz ere kolera gaitza izatea.

KOLERA ETA ERANTZUKIZUNA


Nazio Batuek oraindik ez dute onartu izurrite honetan erantzukizuna dutela. Jada 8.000 hildako eragin baditu ere, «ezinezkoa da gaitzaren jatorria ezagutzea», diote.

Gaixoeak New Yorkeko auzitegi batera jo dute justizia eske, baina NBEk bere immunitate eskubidea aldarrikatu du, erakundea eratu zeneko itun batek bermatzen omen diona, hain zuzen.

Lotsa guztiz ezkutatu ezinik, NBEren ordezkari nagusiak, Ban Ki-moon, auzian «ardura morala» onartu du, batez ere heriotza eragiten duen hesteetako infekzioari aurre egiteko. Iraganaren gaineko erantzuki-

 **MUNDUA** / Dabid LAZKANOITURBURU

300.000 hildako eragin zituen 2010eko urtarrilaren 12an Port-au-Prince Haitiko hiriburua suntsitu zuen lurrikarak. Hori gutxi ez eta laguntzera joan ziren kasko urdinek kolera izurritea eraman zuten Latinoamerikako herrialderik txiroenera. Bost urte ondoren, Haitik ezbehar guztien geltokia izaten jarraitzen du.



zunik ez. Aurrera begirako promesak.

Egun, etxebizitzak desinfektatzen jarraitzen dute Gurutze Gorriaren taldeek. Carrefurren, Port-au-Prince hiriburuko auzoan, gizon bat kolera jota atzeman dute egun hauetan. XIX. mendearen erdialdean desagertu zen gaitz hau Haitin, Nepalgo kasko urdinek bueltan ekarri zuten arte. «Kasu bat antzeman dugu hemen, kutsaduraren aurkako kanpaina amaitu eta gero. Beraz, inguruko etxebizitza guztiak miatu behar ditugu», azaldu du Maxiles Joles Gurutze Gorriaren langileak.

Izurriteak behera egin du azken urteetan. Iaz 9.000 kasu antzeman zituzten (2013an 200.000 izan ziren). Gaitza jasari arren bizirik irteteko tasak ere nabarmen gora egin du, baina gaixoeak sufritzen jarraitzen dute. Izan ere, Haitiko osasun sistema oso ahula zen lurrikararen eta izurritearen orduan. Egun oraindik ez du hobera egin.

Vilvert Jeanne bizirik irten ahal izan zen. Ez, ordea, sufritu gabe. «Begiratu haur hori; ni ere lau oinetan ibiltzen nintzen gaixorik nengoen. Dshidratatu egiten gara, ur asko galtzen dugu. GKEak botikak banatzen eta kolera aurre egiteko aholkuak ematen egon izan balira, lagundu ahal izango ziguten, baina ez zegoen inor», gogoratu du gaixo honek.

Adituez aparte, azpiegiturak ere faltan botatzen dira. «Urteetan, ez da ezer inbertitu uraren eta azpiegitura sanitarioen arloan. Eta horrexegatik itzuli da berriro ere kolera», salatzen du Poncelet doktoreak. «Kezkatzen nauena zera da, egun ebola, errubeola edota beste hainbat gaitz zabaltzeko arriskua dagoela, baina hauei aurre egiteko ez dela ezer inbertitzen», esan du oso kezkatuta.

HASIERAKO EGUNETAN BAKARRIK

Lurrikarara itzulita, hasierako egunetan urgentziatzeko beharrak nola edo hala asetzeko laguntza iritsi zen, baina nazioartek ez dio sekula eman Haitin herrialdeari altxatzen laguntzeko epe ertain eta luzerako laguntza.

«Duela bost urte, denok Haitira begira geunden, hainbeste hildako eta 2 milioi pertsona kale gorrian utzi zituen lurrikara odoltsua izan zela eta», gogora dakar Chiara Liguorik, Amnesty Internationaleko kideak. «Tamalez, ordutik hona, mundua Haitiz ahaztu egin da berriro ere».

Errefuxiatuek eraiki behar izan dituzte euren etxe xume berriak. Baina 100.000 inguru kanpin-dendetan bizi dira oraindik. Hiriburutik gertuko Canaan herriko Camp Corail errefuxiatuen eremua adibide bat baino ez da. Bertakoek ez dute lan egiteko aukerarik eta ur eta argindarrak gabe bizi dira. «Port-au-Princerekin alderatuta, hemen ez dago ezer. Hiriburuan behintzat zer edo zer sal dezakegu eta diru pixka bat lortu», ke-xu da Djouvens Noel, bertako «biztanlea».

Caananen 300.000 biztanle inguru bizi dira egoera oso kas-karrean. «Hemen gaude, errefuxiatu gune handi batean. Dene-tarik falta zaigu», errepikatu du 76 urte bete dituen Jean Vincen-tek. Bera plastikozko txabola ba-tean bizi da.


Bertan bizi da 2010eko urta-rrilaren 10ean etxeak nola erortzen ziren bere begiekin ikusi zuen Fabiola ikaslea ere. «Gaur egun, etxeak inolako kontrolik gabe eraikitzen ari dira. Beste ezbehar bat gertatuko balitz, hildakoak gehiago izango lirake», ohartarazi du.

Izan ere, Estatuaren aztarna-rik ere ez da sumatzen Caanan moduko guneetan eta GKE gehienek alde egin dute.

«Ezbeharraren biharamune-an, bazirudien arduradunak etxebizitzaren auzia behingoz konpontzeko prest zeudela. Baina amets hutsa zen», dio Chiara Liguori Alko eledunak.

ELBARRITUEN ARAZOA

Badira, ordea, etxea baino gehiago galdu dutenak. La Piste errefuxiatu gunean 4.000 elbarritu bizi dira, txapazko barraketan. «Hanka galdu nuen eta ezin dut lanik egin», azaldu du Jean-Baptiste Saint-Miliok. «Noizean behin, jendeak janaria ematen dit nire seme-alabentzat, baina



Aurreko bi irudietan, aurten eta lurrikararen biharamunean ateratako argazkiak. Aurkitu, ahal baduzu, zazpi diferentzia. Ondoan, Gobernuaren korrupzioa salatzen barrikadak, hiriburuan.

STF / Hector RETAMAL (AFP)

batzuetan bizpahiru egunetan ez dute ezer jateko». Handicap moduko gobernu kanpoko erakundeek ahal dutena egiten dute. Kontua da Haitin bertan ez dagoela protestak egiteko eta elbarrituei erabiltzen irakasteko inolako espezialistarik.

Gobernuburuak haserre daude. Nazioarteak 9.000 milioi dolar agindu zien, baina sosa batzuk baino ez dituzte ikusi. Iritsitako diru-laguntza gehienak zuzenean GKEek jaso dituzte, Gobernutik pasatu gabe. Haitiko exekutiboaren korrupzioa erabili izan dute aitzakia gisa.

Izan ere, zoritxarreko urteurren honetan, Haitik duela doze-

naka urtetik bizi duen krisi politikoa agerian geratu da. Aurreko abenduan, Michel Martelli presidentearen aurkako matxinada hasi zen. Kale borroka puri-purian egon da (Poliziak manifestari bat hil zuen) eta korrupzioa eta nepotismoa salatuz, Martelli boterea uzteko exijitzen zioten herritarrek.

Lehen ministroak, telekomunikazioen arloan Afrikan dirutza egin zuen Laurent Lamothe, kargua utzi behar izan zuen korrupzio salaketak medio, baina bere ordezkioak, Evans Paulek, ezin izan zuen kargua hartu, oposizioak Asanblea Nazionalaren bilkurari boikot egin

ziolako. Lehen ministroak gabe, hauteskundeak deitzeko data iragan astean agortu zen, eta lurrikaren urteurreneko ekitaldiak hasteko ordu batzuk falta zirenean, azkenean Martelli presidentea akordio batera heldu zen oposizioak 20 bat ordezkari politikoekin. Hauteskundeak urtea amaitu baino lehen izango dira. Krisi politikoak, ordea, jarraituko du.

Baina, egia bada ere, krisi politikoak eta korrupzioak ez dute esan nahi Haitiko Gobernuak nazioarteari egiten dizkion kritikek zentzurik ez dutenik.

«Nazioarteak agindu bai, baina diru-laguntzaren zati handiena ez da sekula azaldu; gezur hutsa zen», salatzen du Jonathan Katzek, «The Big Truck That Went By» liburuaren egileak (literalki, «Begen aurretik igaro den kamioi handia»).

Horrela, bada, «bost urte hauetan ez dira urtetan irauteko azpiegitura sakonak eraiki», salatu du, bide batez.

Kamioiak beti hanka egiten die haitiarrei. Ezbeharrek ez. Ezbeharrek beti geratzen dira Haitin. Han dute geltokia.

«Duela bost urte, denok Haitira begira geunden. Tamalez, ordutik hona, mundua Haitiz ahaztu egin da berriro ere»

«Nazioarteak 9.000 milioi dolar agindu zien haitiarrei, baina gehiena ez da iritsi. Gainera, iritsi diren sosak ikusi ere ez ditu egin krisi politikoak jota jarraitzen duen Haitiko Gobernuak»



Ander Gortazar Balerdi
Arkitektoa

Merkatuaren alde (eta kontra)

Anne Clerval geografoak azken 50 urteotako **Pariseko gentrifikazio-prozesua aztertu zuen** “Gentrifikazioaren espazio-dinamikak Parisen: sintesi mapa bat” lanean. Gentrifikazioa, aipatu izan dugu hemen, merkatuak desiragarritzat jotzen dituen auzoek jasaten duten burgestea da, bertako biztanle-profila aldarazten duena pixkanaka ala kolpean. Kartografia kritikoko ariketa honetan barrutik kanporako indar gentrifikatzaile bat marraztu zuen Clervalek, hiriko mendebaldeko Beau Quartier-etan jatorria duena, eta azaltzen du nola joan den hamarkadaz hamarkada gentrifikazioaren muga hori labainduz, lekualdatuz, Paris hiria ofizialki amaitzen den Boulevard Périphérique estutuz.

Bitartean, duela hilabete gutxiko artikulu batean, Simon Kuiper kazetariak dinamika beraren hurrengo pausoaz jardun zuen eta fenomenoaz azaltzeko tankera aldrebeseko hitz berri bat proposatu: plutokratizazioa. Grekeratik, *ploutos* (aberastasuna) + *krazia* (boterea).

Saskia Sassenek *hiri globalak* izendatu zituen horiek ghetto aristokratiko bihurtzen ari direla azpimarratzen du plutokratizazio kontzeptuak, alegia, eliteak bere burua iraunarazten duen ingurune fisikoa. Fenomenoa ez da berria, eta gentrifikazioarekin gertatzen den bezala, logika kapitalistaren baitan erraz ulertzen da. Aldatzen den ezaugarri nagusia lekuz mugiarazten den biztanleriaren profila da. Merkatua alde izan duenak kontra du orain, historikoki gentrifikatzailea izan den klase soziala baita hiritik alde egitera behartua sentitzen dena prezio altuetatik ihesi. *Priced out* ingelesezko lokuzioak ongi laburbiltzen duen moduan.

Gentrifikazioaren kontra edo plutokratizazioaren beldur, albiste izan da Parisko Udalak gobernu plan bat prestatu duela fenomeno hauei aurre egiteko. Saiatzeko, bederen. *Droit de préemption* (lehentasunez erosteko eskubidea) delakoa erabiliz, kale zehatz batzuetan, etxebizitza salgai jarritz gero Udalari eskaini beharko dio lehenik jabeak, merkatu-balioan baina Udalak berak erabakitzen duen prezioan. Epe motzera, helburua alokairuan bizi diren klase ertain-baxuko bizilagunen ihesa ekiditea da, eta nahasketa soziala eskailera-ekalan bermatzea. Epe luzera, aldiz, Pariseko etxebizitza-multzoaren herena publikoa izatea, eta babes ofizialeko etxebizitza horiek puntu zehatz batzuetan kontzentratuta egon ez daitezen da helburua.

Neurri “erradikal” gisa aurkeztu dute proposamena hainbat hedabidek, eta zer pentsatua eman dit. Ideia interesgarria izanagatik, indar publikoaren ezintasunaren adibide sintomatikoa dela pentsatu dut, Udalak lehentasunez erosi ahal izango dituen 8.000 etxebizitzetatik 100 bat soilik pasatuko direlako esku publikoetara, euren kalkuluen arabera. Merkatu-balioa onartzearen porrot sinbolikoan pentsatu dut ondoren, gobernu plana *de facto* garestiegi bihur dezakeena, merkatuaren alde eta kontra aldi berean. Azkenik, hain gurea dugun desjabetzearen sistemarekin konparatuz gero ez ote den neurritxo ñimiño ia ezdeusa, pentsatu dut. Eta zeinen erraz desjabetzen den gure herrian “interes orokorra” komodinaren izenean, kotxerik gabeko autobide bat edo trenik gabeko trenbide bat erakitzeke bada ere. Interes orokorraren lehentasunak, 100.000 etxebizitza pasatxo huts ditugun Herrian. •



Pariseko kale batzuetan, etxebizitza salgai jarritz gero Udalari eskaini beharko zaio lehenik.

Ander GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Ez da xakea, aurrerabideak galarazteko saioa baino ez

ETako biktimen izenean hitz egiten duen Daniel Porterok (Dignidad y Justicia) Twitterren botatako mezua oso adierazgarria izan zen (*Los batasunos estáis nerviosos porque nadie ha pedido suspender la manifa de los terroristas de ETA de mañana??. Todo a su debido momento...*). Ez litzateke espekulazio hutsa esatea PPK biktimen mundu hori landu duela, aurreko urteko egoera ez sortzeko. Manifestazioaren debekua kontra bueltatu zitzaion orduan, eta inoiz Euskal Herrian izandako manifestazio handiena egin zen. Horregatik esan daiteke PPK oraingoan ondorengo erantzuna prestatu duela eta presaketa horretan hainbatekin hitz egin duela. Hainbeste karranka egiten duten biktimen elkarte horiekin bai behintzat, Porteroren hitzetatik ondoriozta daitekeenez.

Ultraeskuindarrekin arazo askotxo izan eta gero (abortuaren gaia dela-eta, adibidez), ez du nahi ETArekin aferra beste hingatze fronte bat bihurtzea, hauteskunderen azken txanpan baitira. AVTk urtarrilaren 24an Madrilen egingo duen kontzentrazio-tik abiarazi zitekeen ildoan erabat neutralizatu du.

Hauteskunderen gertatutako guztian eragin handia izan dutela ezin daiteke uka, baina azterketa hankamotz geratuko litzateke gai hori bakarrik hartuko bagenu kontuan. Euskal Herrian sortutako agertoki berria okerrerrako baldintzatzea dute xede nagusia. Azkenaldian, badirudi ezker abertzalea ere konturatu dela gatazkaren arrazoiak eta ondorioak ezin go direla bereizi bi prozesutan (paradoxikoki, horixe eskatzen zuten gainerako eragile guztiek orain dela ez asko). Halaxe esan berri du Arnaldo Otegi "Berria" egunkariko elkarrizketan: «Estrategiaren ardatza prozesu independentistan jarri behar da, eta ondorioen agenda hor kokatu». Baina, seguru asko, ezker abertzalea baino lehenago bakearen kontrako agenda maneiatzen dutenak iritsi ziren ondorio bertsura; bi eremuak –gatazkaren muin politikoa eta gatazkaren ondorioak– uste baino askoz ere elkarlotuago daudela, alegia. Estatuak duen krisi galanta edukita eta Euskal Herrian trantsizioaren iruzurak ibilbiderik gabe geratuta, zer pasatuko ote litzateke eremu politikoan ondorioen agenda desblokeatuko balitz? PPK egin du ekuazio hori eta emaitza ez zaio

batere gustatu, are gutxiago Kataluniako prozesuak halako dimentsioa hartuta.

Edozein prozesu blokeatu nahi izatea eta hauteskunde zikloan sartu izana dira PPK gidatutako azken oldarraldien arrazoiak. Antza, ez zuen Eusko Jaurlaritza informatu, baina sinesgaitza da azken hilabeteetan elkarri ezer esan ez izana. Nola ulertu, bestela, atxiloteten ondoko erantzun epela, inoiz baino epelagoa? Gobernuak ezker abertzalea egurtuko duela asumitua dute nonbait jeltxideek, noizbait beraiek Madrilekin aritzeko aukera izango dutelakoan. Gobernuak aldebakarreko apustua garatzea oztopatu nahi dio ezker abertzaleari, umiliazioaren bidetik ez badoa, eta Iñigo Urkulluren jokabidea posizio hori indartzen ari da (han eta hemen zabaltu diren zurrumurruek diotenez, izugarriak dira lehendakariaren laguntzaile ezagun batek nazioarteko zenbait eragileekin egindako gestioak, jokalekua txiki-txiki bihurtzeko asmoz).

Estatuak duen krisia edukita eta Euskal Herrian ibilbiderik gabe geratuta, zer pasatuko ote litzateke eremu politikoan ondorioen agenda desblokeatuko balitz? PPK egin du ekuazio hori

Halere, PP berrirori urrunegi joan da, eta Jaurlaritza ebidentzian utzi du. Atxiloteten ostean, Auzitegi Gorenaren ebazpena etorri da, eta ebazpen horrekin presoan gaineran ardura jartzearen diskurtso ustela agerian geratu da, kaltetua, kasu horretan, EPPK aspaldi utzi zuen Kepa Piskabea izan baita. Egoeraren errua presoan bizkar gainera bota izan duen Erkorekak berak haxe aitortu behar izan du: «Espainiako Gobernuak espetxe politikaren salbuespen egoerari amaiera eman behar dio».

Une historiko hau Euskal Herrian elkarrekin lan egiteko eta urratsak egiteko aproposa da, batez ere herritarrek behingoz beste errealitate bat erdietsi nahi dutelako. Horregatik, jeltxideen esperantza ezin daiteke izan ezker abertzalea itolarrian ikustea –eta katalanen prozesua ez atzera ez aurrera geratzea– beraiek berrirori ere hirugarren bide gisa azaltzeko. Herri honek ez du horrelakorik merezi. •

EUSKARA IKASLE ERRETIRATUAK: INOIZ EZ DA BERANDU

Maidor Iantzi Goienetxe

Erretiratuak dira, ez dute lanerako behar, baina atea irekitzera animatu dira. Saltseroak dira, tematiak, hagitz aktiboak, eta talde kosmopolita osatu dute Durangoko AEKn; isiltzen ez den solasaldia, terapia ere baden irri etengabea... Euskara, eskola baino, familiatxo bat.

Abisatu gabe agertu eta ezustea eman die GAUR8k Durangoko euskara ikasle erretiratuei, eta eurek ere sorpresa polita eman diote irakasleari, hasierako urdurtasun eta beldurrak gainditu eta euskaraz mingaina askatu eta ederki dantzatzeko gai direla erakutsiz. Sorpresa tarta bat ere izan zitekeen, hala bota digu ikasle batek. Segur aski elkarriketa baino nahiago izanen zuten, baina pentsatzen jarrita, ez da irudi txarra Pinondo plazako AEKren egoitzan bizitutako esperientzia azaltzeko, hala atera baikara, zapo gozoarekin eta beteta.

Astelehena, goizeko hamarrek jotzear, Amaia Sarriñandia irakaslea atean dago, ikasleen zain. Oraindik ez da inor iritsi eta arraroa dela dio, normalean puntualak izaten direlako. Hara, badator lehena, Mari Carmen. Agurtu orduko poltsa zabaldu eta oparia eman dio Amaiari. Hurrengoa bizikletan dator, hurrengoa berotuta... «Zer, sukarra?», galdetu diote kideek. «Ez, ez, berotu egin naute». «Lasai...». Pixka bat kezkatuta gaude gu, ea nola hartuko gaituzten bat-batean koaderno eta argazki kamerarekin harrapatuta, baina denak erreportajerako prest azaldu dira hasieratik. «Dena euskaraz? Ai ama!», irriz.

«Aizu!» aldizkariak banatu eta berriketan hasi dira euren artean, isildu gabe, euskaraz. «Zer esan duzu?», galdetu du batek, eta gaztelaniaz segitu dute kontu kontari. Sarriñandiak agertu digunez, solas aunitz egiten dute euren artean eta joera izaten dute gaztelaniaz aritzeko, horregatik eskatua diote irakasleari berak beti euskaraz egiteko. Den-denek ez, baina taldeak sei urte daramatza euskara ikasten. Durangoko AEKn erretiratuen lau talde dituzte, 40 ikasle baino gehiago. Hiru irakasleren artean banatzen dituzte. Hasieran gutxi ziren, baina jendea animatzen hasi da eta gero eta gehiago dira. Irakasleak ere harrituta daude. Aurten, o-tik hasiko den talde bat dute. Berrizen ere 6-7 lagun batu eta orain hasi dira. Azterketarik prestatu beharrik ez dute; euren helburua komunikatzea da, hitz egitea, seme-alabekin, bilobekin, lagunekin... «Inoiz ez da berandu» dute lema. «Errepikatuko dugu, baina azkenean lortuko dugu».

«Oso bereziak dira», deskribatu ditu irakasleak ezagutuko ditugun lagunak. Adierazi duenez, bakoitzak bere istorioak ditu, baina badago feeling-a. Atetik sartzean tenperatura neurtu behar du eta, sarri, prestatua duena gorde eta eskola bertze era batera bideratu. Orain guk desbideratuko ditugu ikasgaitik...



Ikasleak ariketa liburuarekin lanean, Durangoko Pinondo plazako AEKn. Lehenengo planoan, Desi markinarra. Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

Lehenik eta behin, bakoitzari bere burua aurkezteko eskatu diogu. Asunek, Arabako Errioxan jaioak, euskara gainditu gabe duen ikasgaia dela dio. Etxean bai seme-alabek bai bilobak badakitela kontatu du. Baina senarrak eta biek beti gaztelaniaz hitz egiten dute. Gizona Extremaduran jaio eta txikitan etorri zen Euskal Herrira. «Orain dela denbora pila bat euskaltegira joan nintzen, baina 3. mailan utzi egin nuen. Asko kostatzen zait euskaraz hitz egitea, nota altua eskatzen zidaten eta orduan utzi egin nuen»,

oroitu du. Orain, denbora gehiago duela aprobetxatuz, berriro heldu dio ikasketari. Aitortu duenez, seme-alabak eta biloba aspertu egiten ditu, mantso mintzatzeko delako. Gero ikasle aunitzen ahotan errepikatuko den ideia da familia asperzearena edo etxeko «pazientzia falta»rena. Irakurtzen hobeki moldatzearena ere bai.

«Durangon bizi naiz, euskara nire hizkuntza da eta horregatik saiatzen naiz ikasten», hasi da Maite. «Urte asko daramatzat, batzuetan oso nekatuta egoten



Goian, Amaia Sarrionandia,
Korrikako leloak dioen bezala,
ikasleak «euskAHALtzen» dituen
irakaslea. Behean, Mari Carmen.
Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

naiz, baina berriro saiatzen naiz... Eta he-
men nago berriro», adierazi du eta ikas-
kide guztiak barrez jarri ditu. Amama-ai-
titek bazekiten euskaraz, baina ez zieten
inoiz egin. Eta lanean, etxean, familiare-
kin... inoiz ez du euskaraz egin Maitek.
Orain ere ez, «giroa ez baita euskalduna».
Osakidetzan egiten zuen lan eta han ere
giro erdaldunean bizi izan zen, nahiz eta
jendea nahiko euskalduna izan.

Desiren kasua berezia da, Markina-Xe-
meindik etortzen delako Durangora, as-
telehen eta asteazkenero kotxez, euskara



ikastera. Hiru bilobak hemen bizi dira (laugarrena ere aurki jaioko da) eta be-
raiekin mintzatzeko, ikastea komeni zaio.
Durangarrek 12 euro soilik ordaindu be-
har dute ikastaroaren truke; Desik gehia-
go, baina Markina-Xemeingo Udalak
bueltatzen dio gero dirua. Galizian jaio
zen eta maisu lanpostua eskaini ziotela-
ko hartu zuen Lea-Artibairako bidea.

Consuelo Uruguakoa da. «Kosmopoli-
tak gara!», bota du Desik. «Bera beti gua-
pa eta pozik», erran dute lagunek Con-
suelori buruz. «Ai, mugitu egin naiz!»,
atera zaio honi, ondoan argazkilaria klik
eta klak sumatuta. «Abisatu egin behar
zenuten...». «Zertarako? Astelehenetan ez
dago pelukeriarik», segitu dute irriz.

«Bueno, kontatu...», eskatu diogu. «Bai-
na euskararekin izan dudanez esperientzia,
ezta? Ez nire bizitza guztia...», berak ziri-
katzeari utzi gabe. Orain dela 50 urte bai-
no gehiago etorri zen Euskal Herrira eta
euskaraz hitz egin nahi du. Senarra eta
semea euskaldunak dira eta eurekin eta
lagunekin euskaraz egin nahi du. «Oso
pozik nago hemen, taldea oso jatorra da
eta ikasleak animatuta gaude».

Jose Mari taldeko euskaldun zaharra
da. Aitak ez zien etxean erdaraz egiten
uzten eta berari esker gorde du euskara.
Halere, familian ez du erabiltzen, zaha-
rrekin bakarrik, osaba-izebekin. Ohitura
hartzera etorri da AEKra, baita alfabetat-
zera ere, bere euskalkian ongi baina ba-
tuarekin galdu egiten da-eta. Irratia adi-
tzea gustatzen zaio, ongi mintzatzen
direnei entzutea.

Paki jaendarra txikitari etorri zen gure-
ra. «Orduan euskarari ez zitzaion garran-
tzirik ematen, baina asko gustatzen zait.
Orain denbora dut eta pausoa eman dut;
ea ikasten dudanez, bilobarekin hitz egite-
ko... Jolasean egiten dugu pixka bat». Za-
lantzati eta urduri abiatu du aurkezpena,
baina gero primeran egin du. «Pakik beti
dio ‘ez dakit’ eta gero begira!», aurpegira-
tu diote kideek.

GERRAREN ONDORIOAK

Biziak, zuzenak dira Mari Carmenen hi-
tzak. Badute beltz puntu bat, ona. Duran-
gon jaio eta bizi den emakumeak txikita-
tik izan zuen euskararekin harremana,
baina «zer ordu da eta txakurra kanpora»
soilik erraten omen zuen. Eta gurasoek
haurrek ez ulertzeko egiten omen zuten
euskaraz. «Gerrako kontuak...». Senarra
eta seme-alabak euskaldunak ditu eta eu-
rekin ikasi du. «Umeei beti egiten nien
euskaraz... baina beti aditz berdina!»,
esan du eta denak irrika jarri ditu. «Bilo-
bak egun batean esan zidan: zelako txar-
to egiten dozun euskaraz amama! Hain-



Amaia Sarrionandia, Asun, Maite
eta Consuelorekin. Irakasleak
azaldu duenez, bakoitzak bere
istorioak ditu, baina badago
feeling-a taldean. Atetik sartzean
temperatura neurtu behar du eta,
sarri, prestatutakoa gorde.
Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

beste erdara, hainbeste erdara... Beti? Be-
ti-beti ez, baina...». Mari Carmenen buru-
ko mina aditzak dira, ulertu ia dena egi-
ten du. «Denda batean sartu eta euskaraz
hasien naiz, baina gero *kieto parau!* Eta
umeeekin beti», azaldu du.

Haurra zela Arrankudiagatik Durango-
ra etorri zen Ana Marik ere oroitzen ditu
gaztetako lotsak eta beldurrak. Eskolan
«baserritar» deitzea iraina zen. Herri er-
dian, Barrenkalen bizi ziren, erdaraz.
«Gurasoak euskaldunak ziren. Amak
txarto egiten zuen erdaraz, baina beti er-
daraz». Orain, Ana Mariren alaba ikasto-
lako irakaslea da.

Azken aurkezpena, Marilirena. Bilbon
jaioa eta 10 urterekin Durangora etorria
da. «Euskararekin lehenengo kontaktua
ezkondu nintzenean izan nuen, amagina-
rrebarekin. Gizona durangarra da, baina
Andaluzian, Katalunian... bizi izan zen
eta galdu egin zuen. Euskara gustatzen

**Durangoko AEKn erretiratuen lau talde dituzte, 40 ikasle
baino gehiago. Hasieran gutxi ziren, baina orain gero eta
gehiago. Irakasleak ere harrituta daude. Berriz ere 6-7
lagun batu eta orain hasi dira**

**Azterketarik prestatu beharrik ez dute; euren helburua
komunikatzea da, hitz egitea, seme-alabekin, bilobekin,
lagunekin... Beren seme-alaba eta biloba guztiak
euskaldunak dira**

zait, euskalduna naiz, gaintu gabe du-
dan ikasgaia da. Ikastolan, lonja batean,
gela txiki-txiki batean, han hazi zen nire
semea. Amaginarrebak esaten zidan: zer-
gatik ikastolara? Han ez du ikasiko... Eta
erantzuten nion: nik euskaraz ikastea
nahi dut». Hizketan ari dela geldiuneak
egiten ditu Marilik, urduri jarri eta bloke-
atu egiten da. Gainera, ingelesezko hitzak
nahasten zaizkio, hizkuntza hau ere ikas-
ten ari baita.

ERREKONKISTA BENIDORMERAINO

Consuelok adierazi du, Amaia keinu bat
eginez, irakasleek hitz egitera animatu
dituztela eta orain konfiantza handiagoa
sumatzen duela berak. «Etxean mintza-
tzen naizenean, zuzendu egiten didate,
baina desberdin, maitasun gehiagore-
kin».

«Emazteak esan dit masaje eskolan
euskaraz hitz egiten duzula eta ongi ari-
tzen zarela», komentatu dio Denisek.
Gazteak kalean euskaraz asko entzuten
dituztela eta poz handia hartzen duela
ere agertu dute. «Bilbon ere bai!», adiera-
zi du batek emozioz. «Eta Haron...»,
besteak. «Eta Benidormen!», irakasleak.
Errekorkista.

Gaur egungo etorkinen umeak zeinen
ongi ikasten ari diren aipatu du uruguai-
tarrak. «Esponjak bezalakoak dira; guk,
aldiz, beste kezka batzuk ditugu. Ez zaigu
asko gelditzen garunean». Barreak berriz.

Hagitx aktiboak dira taldekideak: lite-
ratura, masajea, ingelesa, kantua, ehozi-



ri-lana, belarrak... Jakintza ugari jorratzen dute. Mari Carmenek kremak egiten ditu. «Eman zenidan ukendua, oso ona!», eskertu dio Consuelok. «Zerez egina dago?», jakin nahi izan dute besteek. «Haurrarentzat erosi behar dizut», Amaiak. «Erosi ez, hartu», Mari Carmenen erantzuna.

Batzuetan, umeak baino okerrago portatzen direla aurpegiratu die irakasleak: «Klasean sartu eta sekulako iskanbila». Batzuetan, energia guztia xahutzen diotela dio. «Gogorra eta jenio txarrekoa» dela erranez erantzun diote, «baina irakasle ona». Denetariko gaiez aritzen dira berriketan eta primeran pasatzen dute. Etortzen ez direnean ez da gogo faltagatik izaten, etortzeko «irrika» izaten dute. Taldea hagitz batuta dago eta berriki udal euskaltegira bidali nahi izan dituztenean AEKn jarraitzeko borrokatu dira. Momentuz, lortu dute helburua.

Eskolaz gain, ekintza ugari egiten dute elkarrekin: bazkariak mendian edo txokoan, paella jatea sanfaustotan, urtebetez ospakizunak... Harreman ona dute eta ez dute aitzakiarik behar.

DESI, ESTOLDAN DESAGERTUTA

Norbait adinaz solasean hasi da, Desi 78 urtekoa dela taldeko zaharrena... Eta beharrela agindu digute: «Egunkarian ez dadila adinik agertu!». Desiz ari direla, taldearen izaera ongi deskribatzen duen pasadizo bat etorri zaie gogora eta bat-batean gainera etorri zaizkigu begirada

Ikasle taldeak WhatsApp taldea dauka eta euskara praktikatzeko baliatzen du. Argazkian, telefono zerrenda errepasatzen.
Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

«Umeei beti egiten nien euskaraz, baina beti aditz berdinak», esan du Mari Carmenek eta denak irrika jarri ditu. Aditzak dira bere buruko mina. «Denda batean sartu eta euskaraz hasten naiz, baina gero 'kieto parau'!»

Hala leporatzen omen diote Desiri: «Baina, baina zuk 20 urte gutxiago bazenitu bezala pentsatu eta jarduten duzu!». «Eta, txarra al da hori?», erantzuten die markinarrak. Hona bere errezeta: beti lan eginez eta aktibo bizitzea

eta hatz guztiak: «Hori bai, agertu dadila!».

Hor doa: behin batean, ikaskideak kalean zeudela, bat-batean Desi estolda zulo batean desagertu zen. Desagertu, desagertu... erabat ez, baina tapa gaizki jarrita zegoen eta hondoratu egin zen gizona. Talde osoa udaletxera joan zen, deklaratzera eta salaketa jartzera. Bueno, horren aurretik galtzak erostera lagundu zioten, erabat zikindu baitzitzaizkion, baita ambulatorki ere, hankan zauria baitzuen. «Ze galtza politak erosi genizkizun!», erran diote kideek Desiri. Ederra izan zen elkartasuna: «Desi, goazen udaletxera», lagunek. «Ez», berak. «Bai, bai, bai», kideek. «Desi, goazen ambulatorki». Berak ezetz eta lagunek baietz.

Xehetasun bat: urrian izan zen eta oraindik ez diete ordaindu. Ordaina jasotzean egingen duten afari

ederrarekin –edo bazkaria, hobeki, baten batek zehaztu bezala– amesten hasi dira.

Gertakari haren ondotik, kideen elkartasuna gorai patuz artikulua bat idatzi zuela kontatu du Desi. Eta Consuelok, natural-natural, bere burutazioak plazaratu ditu: «Pena da, denok telefono mugikorra izanik, argazkirik egin ez izana. Hala, froga garbia izango genuen. Norbait erortzen den hurrengoan...». Barrez lehertzekoa da Consuelo.

WHATSAPPEN TIKI-TIKI

Denek dute sakelako telefonoa, bai, baita WhatsApp ere. Eta administratzailea, asmatu duzue, taldearen lokarri den urugaitarra. «Nabaritzen da Mari Carmenek noiz bukatu dituen eginbeharrak...», aipatu dute lagunek. «Asko gustatzen zait WhatsApp, asko», aitortu du honek. Tiki-tiki ibiltzen dira, egun osoan, baina, nabarmendu dutenez, «gauza inportanteak» jartzen dituzte, adibidez: norbaitek ezin duela klasera etorri. Euskara praktikatzeko ere balio die, Desi dena euskaraz idazten du eta hitz berriak ikasten dituzte. Esaterako, *ikaskide*.

Halaxe, kontu kontari, klaseko bi orduak ustekabeen pasatu dira eta ikasleak mugikorrari begiratzen eta gauzak biltzen hasi dira. Bakoitza bere eginbeharretara doa, baina aitzinetik Desi elkarrizketa egin bitartean paper batean idatzi duen agur poema irakurri du.

Antolatzen ari diren ekimen batzuen berri emateko helbide elektronikoa hartu ondotik, alde egin dute. Solas egiten genuen bitartean ariketa liburuekin lanean aritzeko tarteak ere hartu dute ikasle saiatuek. Isildu da etengabeko solasaldia, barreak bezala, eta pentsatu dugu baietz, Amaia Sarrionandia irakasleak arrazoi duela, energia aunitz xurgatzen dutela.

«Kasualitatez», Durangoko Udalaren eskariz, «beldur pixka batekin» hasi zen abenturak sei urte bete ditu eta aitzinera doa, gero eta ikasle gehiagorekin, gainera. «Oso gustura gabiltza –baieztatu du Amaiak–. Aurten ia-ia galdu egin ditugu, udal euskaltegira eraman nahi zituztelako, baina presioa egin dute eta momentuz hemen daude. Udalak diruz laguntzen du ikastaroa». Azaldu duenez, gramatika lantzen dute, irakurketa, eta, batez ere, komunikazioa euskaratik harago doala eta inoiz ez dela berandu erakusten duen ikasketa honetan.


Hala leporatzen omen diote Desiri: «Baina, baina zuk 20 urte gutxiago bazenitu bezala pentsatu eta jarduten duzu!». «Eta, txarra al da hori?», erantzuten die markinarrak. Hona bere errezeta: «Inportantea beti lan eginez eta aktibo bizitzea da».



Ainara
AZPIAZU
'AXPI'

iRRITZIA:

To suis or not to suis...
that's the question





Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

GAINEAN DUTEN HERRIAREN TAUPADA

Beste egun batez Poliziak esnatu du Euskal Herria. Artean Bilboko elkartasun ajea pasatu gabe zegoela, «*abran, la Guardia Civil*». Arnasa eutsita joan dira orduak, egunak eta gauak. Eta oraindik ez gara konturatu egun batzuk pasatu ditugula arnasa hartu gabe. Atera direnak besarkatuz, barrura sartu dituztenak besoekin estutzeko behar larriz, beste kolpe bat, beste ubeldu bat belaunetan. Baina ez gara belaunetako

ubelei begira geratzekoak. Altxatu eta parera begiratzekoak gara, hurrena nora iritsi behar dugun kalkulatzen. Poliziak gehiago dira goitik behera begiratzekoak. Horregatik gustatzen zaie paretik ari zaiena makurraraztea. Zenbat polizia hemen inguruan, eta polizia adina polizia itzal. Noizbait gai izango balira gora begiratu eta gainean duten herriaren taupada sumatzeko eta ulertzeko... amagoia.mujika@gaur8.info



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



Argazkiak: EHKOLEktiboa

EHKOLEktiboa agroekologia bultzatzeko ahalegin betean da

Bertokoa, ekologikoa eta gizarte osoarentzat onuragarria den ekoizpen eredua Euskal Herri osoan zabaltzea du helburu EHKOLEKTIBOAK. Iparralde eta Hegoaldeko nekazariak zazpi urtez egindako lanaren ondoren, prest daukate Euskal Herriko ekoizpen agroekologikoa (alegia, baserrikoa, ekologikoa, bertatik bertarakoa eta baldintza sozial duinak bermatzen dituen) identifikatzeko tresna. Aldi berean, etorkizunean ere ildo beretik jarraitu ahal izateko, kide berriak egiteko kanpaina bete-betean dago EHKOLEKTIBOAK, ahalik eta euskal herritar gehien agroekologiaren aldeko desmartxan engaiatu asmoz.

Nekazaritza ekologikoa azken hamarkadan izan duen bilakaera positiboaren ondorioz, elikagai ekologikoen ekoizpena eta kontsumoa aintzat hartzeko moduko jarduera ekonomikoa izatera pasatu dira. Herriarren artean, osasungarriak eta ingurumenarekiko errespetagarriak diren

elikagaien eskaria handituz doa. Ekoizpen ekologikoak ere joera berdina du urtez urte, baina gurean, momentuz, eskariak eskaintzak baino indar handiagoa dauka. Horren ondorioz, askotan elikagai ekologikoak urrutiko lekuetatik ekartzen dira, eskari hori asetze aldera. Bada, ekoizpen gunetik kontsumo gunera arteko kilometroen kopurua handitu ahala, elikagaien "ekologikotasuna" ahulduz doa, bai garraioan xahutzen den energiari erreparaturaz gero, baita nekazaritza ekoizpenaren deslokalizazioak jatorrizko herrialdeetan sortzen dituen arazo sozialak aintzat hartuta ere. Nekazaritza ekologikoaren karga filosofiko sakona urardotu ez dadin, EHKOLEKTIBOAKen helburua da ekoizpen eredua zehaztaperen tekniko soiletatik haratago eramatea. Horretarako, Europako nekazaritza ekologikoaren araudia oinarri hartuta, bertokotasunari eta alderdi sozialari ekoizpen ereduari bezainbesteko garrantzia emango dion bereizgarria zehaztu bidean da laborari ekologikoen kolektiboa.

Arras landutako ekimena da EHKOLEKTIBOAKena. 2007an, Pirinioen bi aldeetako laborari biologikoak Euskal Herriko agroekologiaren ezaugarriak zehazten hasi ziren. Orientazioaren arabera sortutako 10 lantaldeetan, lau urtez, baratzezaintzan, frutagintzan, haragitarako abere hazkuntzan, arrautzen ekoizpenean, sendabelarren ekoizpenean... agroekologiaren irizpideei jarraitzeko ezinbesteko baldintzak finkatu dituzte. Iragan urtean, ekimenak hartutako dimentsioaren gibeletik, elkarrekin moduan eratu zen EHKOLEKTIBOAK, eta elkarrekin dinamika mantenduko duen animatzaile bat kontratatu ere egin zuen. Horrez gain, animatzaileari sostengua ematen dion talde eragileak eratu zen.

2015 honetan, ekimenak hasieratik izan duen helburu nagusietako bat erdiestea espero da: kolektiboak zehaztutako irizpideak betetzen dituzten etxaldeei ikusgarritasuna ematea, bereizgarri baten bitartez. Talde eragileak identifikatzailea abian jartzeko lehen urratsa definitu du, kon-

promisoen agiria erredaktatuz. Guztira, 7 konpromiso eta 15 baldintza batzen ditu agiriak, abere-hazkuntza, agronomia, salmenta eta alderdi sozialarekin lotutakoak. Laburbilduz, EHKO identifikatzailea erabili nahi duten laborariak beraien etxaldearen aurkezpenera egin beharko dute eta irizpideak betetzen dituztela adierazi. Horrez gain, lantaldeetan parte hartzeko konpromisoa hartu beharko dute.

Datorren larunbatean, urtarrilak 24, 8. Topaketa egingo du EHKOLEktiboa. Tokia ENEEKen egoitza berria izango da, Zornotzako (Bizkaia) Jauregibarria baserria, hain zuzen. Arratsaldeko 4etatik aurrera, Iparralde eta Hegoalde osoko laborariak batu ko dira bertan, Talde Eragileak prestatu duen Konpromisoen agiria aurkezteko. Topaketaren beste gai garrantzitsua Onarpen Komisioaren aurkezpenera izango da. Talde eragilearen barne dagoen komisio honek EHKO identifikatzailea erabili nahi duten laborarien eskakizunak aztertuko ditu. Kolaboratzeko espirituarekin, onarpen komisioak parte-hartzea bultzatzen duen berme sistema bat garatzea du helburu. Eguna borobiltzeko, transgenikoen inguruko hitzaldi bat egingo da, EHNE Bizkaia eta COAG-eko ordezkari Andoni Garcíaen eskutik.

AUTOGESTIOAN OINARRITUTAKO HERRI EKIMENA

Beste ezeren gainetik, EHKOLEktiboaren dinamikako protagonistak laborantza biologikoan aritzen direnak dira. Euskal Herriko ekoizpen agroekologikoa bereiziko zuen identifikatzaile bat sortzeko espirituarekin jaio bazen ere, ekimenaren garapenak erakutsi du laborarien elkarrezagutza sustatzeak zer-nolako eragina duen. Irizpide agroekologikoak elkarrekin adosteko lan-bilarek gain, lantaldeen dinamika laborarien artean jakintzak partekatzea ahalbidetzen du, etxaldeetara egiten diren bisitetan. Azpimarratu beharra dago, ordea, laborariak EHKOLEktiboaren oinarria izanik ere, herritar ororen parte-hartzea bilatzeari garrantzi handia ematen diola kolektiboak. Bestela nola eraiki liteke benetan agroekologia Euskal Herrian, herritar guztien bultzadarekin ez bada? Iragan martxoan elkarrekin ofizialki eratu zenetik gaurdaino, 100 kideren sostengua jaso du EHKOLEktiboa. Bada zer-bait, baina oraindik ere atxikimendu gehiago beharko ditu, Euskal Herriko nekazaritza ekologiko, bertoko, baserriko eta sozial baten alde lanean jarraitzeko.

<https://ehkolektiboa.wordpress.com/>

ENEK

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologiaren Kontseilua

Berreketa

Amaia Agirre

Berreketa zenbaki bat bere burua zenbat aldiz biderkatzen den adierazten duen eragiketa da. Gurean gertatzen ari diren berreketak ez dira berriketak! Zenbat bider bete ditugu Bilboko kaleak? Zenbat buru hainbat aburu? Aburu bakarra bider milaka buru, hori da gurea.

Joan-etorrietako kilometroak ez dira joanekoak gehi itzulerakoak soilik. Berreketa konplikatu bati bide ematen dion matematika ariketa bat baino gehiago dira.

Imajina ezazue ikasgelako giroa zapuztu duen ikasle bat zigortu duela irakasleak. Ehun aldiz idatzarazi dio «nire gelakideei ez diet errespeturik galduko» esaldia. Irakasleak, eurek jarritako arau bat hautsi duela onartuta, belarriak makurtu eta isil-isilik errepikatu du irakasleak agindutako esaldia. Ustez bete du zigorra, baina zer gertatuko litzateke etxera joan, eta ikastetxean jarritako zigorra errepikaraziko baliote? Eta zuzendariaren aurrean berriz ere arka-

tza dantzan jarri beharko balu zuzendariaren eskua dantza ez dadin?

Edo beste adibide bat. Demagun auto gidari batek abiadura mugak gainditu dituelako isuna ordaindu behar duela. Demagun bide ertzean, zapelatzat bere harrapakinaren zain bezala, Ertzaintza zain zuela, eta zazpiehun metro aurrerago geratu dutela. Ustezko herriaren zaintzaileen negozioan inoiz ez dago beherapenik, eta berrehun euroko isuna dakarte noiznahi opari gisa. Ordaindu ondoren bi puntu kentzea ere zilegi da, ados, baina pentsa ezazue agonia bukatu dela sinetsita dagoenean, etxera beste gutun bat datorkiola. Arau-hauste berberagatik beste isun baten jabe egiten dutela. Horxe berreketa. Urraketa ber bi.

Zilegi al litzateke? Ez, ezta? Bada, euskal presoan kasuan zilegi dela dirudi. Eta inork ez dezala mendekua edo gorrotoa bezalako hitzetan pentsa! Nola, bada! Arauak eta elkarbizitza hausten eta zapuzten dituztenak presoak soilik dira. Fran-

tzian zigorra bete arren, Espainian berriz betetzea legezkoa da. Legeari uko egin arren, legezkoa da. Euskal gizarteari beti kontra egin behar horretan kontraesantetan erortzen dira. Euskal presoak euren etxeetatik dauden bezain urrun dago justizia agintari eskuindarrengandik.

Horregatik elkartu gintuen, besteak beste, urruntasunak eta zurruntasunak Bilbon. Gertaeren lurruntasunak aurrean duguna ikustea galaraz ez diezagun. Horregatik bete genituen Casilla, Zabalburu, Autonomia eta Hurtado Ametzaga, besteak beste.

Eta Casilla ez da marra horizontal eta bertikalek zehazten duten gunea soilik. Eta Zabalburu ez da “enkasillatuta” gauzkaten buru karratuentzat bilgune. Autonomia kalean badakigu zer bilatzen dugun, hitzak berak dio. Eta Ametzagan zer esanik ez, errotik moztu nahi dizkigute ametz, haritz edo pago errotuen sustraiak, baina guk amets egiten jarraituko dugu. •

Nahastu gabe

Koldo Sagasti

Txanodun guardia zibil armatuek iragan larunbatean Bilboko manifestazioan bildutako sosak lapurtu zituzteneko argazkiak hautsak harrotu ditu Euskal Herrian. Musu-truk diru laguntza hori jaso izana Ogasunari iruzurra den argudio txatxua baliatu zuen Barneko ministroak oldarraldi justifikazina justifikatzeko. Arrazoibide berbera erabil lezake Fernandez Diazek igandero Espainia osoko elizetako atabaketan biltzen den dirua atzemateko; baina Jainkoaren bideak bezain ezin asmatuzkoak omen dira bere diru-kontuak, eta horregatik, ez da jaio kristaurik elizaren finantziarioa kolokan jarriko duenik, are gutxiago Opuseko kiderik. Aldi berean,

euskal presoan hamabi abokatuen eta beste lau herritarren atxiloteta argudiatzeko ere, trakets ibili zen ministroa. Trakets baina bere Pariserako bidaian ongi ikasitako erretorikaz. Agerraldi publikoan Fernandez Diazek ezker abertzaleko legelariantzat zein Estatu Islamiarreko sikarioentzat berdin balio zezakeen dialektika lausoa eta zehaztugabea erabili zuen, modu bihurrian. Ondo ikasita ekarriko zuen ikasgaia Frantziarako bisitalditik. Lehen dena ETA bazen, orain dena terrorismoa da, horrela, modu generikoan, berdin ekintzaile politiko bat izan, zein haren abokatua, zein Ceutako hesian bizitza jokoan jartzen duen etorkina, zein kazetariak garbitzen dituen mertzenario bat. Horixe da

“Charlie Hebdo” aldizkariaren aurkako atentatuaren ondoren Europatik datorkigun errezeta, gero eta murrizketa gehiago esku-bide zibil eta politikoen arloan, gero eta jazarpen gehiago edozein disidentzia motarako, dena segurtasunaren izenean; eta orain lizunagoa dena, adierazpen askatasunaren izenean ere bai. Izan ere, Euskal Herrian egunkariak ixten dituzten eta abokatuak atxilotzen dituzten berberak ordu batzuk lehenago Netanyahu gerra kriminalarekin batera erromerian zebiltzan Pariseko kaleetan, zertan eta adierazpen askatasuna aldarrikatzen. Horixe da gakoa, gauzak nahastea, zantpatzailea maitatzen eta zantpatua gorrotatzen amaitzen dugun arte. •



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Hezkuntza-erreforma herri ez normalizatu batean

Mundura begira jarri ginen aurrekoetan. Ikusi genuen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak munduko herritar guztioi hezkuntza jasotzeko eskubidea dugula aldarrikatu arren, 57 milioi hurrek baino gehiagok eskolara joan ezinik jarraitzen dutela.

Lehen mundukoak omen diren herrialde askok konpromisoak hartu zituzten hezkuntzaren unibertsalizazioa bermatzeko. Hala ere, urtez urte, dirulaguntzak gutxituz joan dira eta, gainera, gero eta gehiagotan dirua ez da behar handienak dituztenengana iristen: diru gutxiago eta okerrago banatuta, halaxe laburbil daiteke egoera.

Mundua den puzzle koloretsu horretan Euskal Herria gure kolorez margo tzea lortu ezinik jarraitzen dugu. Normalizatu gabeko herria da gurea, ondorioz. Geografikoki eta administratiboki zatikaturia, Espainiako eta Frantziako gobernuak ezarritako legeek eta Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak haiei egoniko egokitzapenak arautzen dute hezkuntza.

Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako herrialdeetan eskoletako ildo nagusiak Espainiako Gobernuak diseinatu eta ezartzen ditu. Frankismoaren ondoren igaro diren 37 urteetan, hezkuntzari dagozkion zazpi lege organiko ipini ditu indarrean. Azkena, ikasturte honen hasieran bertan, Hezkuntza Kalitatearen Hobekuntzarako Lege Organikoa –Wert legea–, LOMCE gisa ezagunagoa. Lege organiko hori, 2013ko urte amaieran onartu, eta haren ebazpena 2014ko uztailan argitaratu zuen Madrilek. Tokian tokiko administrazioek, ordea, ez zuten dekreturik idatzi LOMCEa aplikatzeko edo saihesteko. Ez omen zuten denborarik izan.

Hezkuntza komunitateak eta eragileek behin eta berrir salatu dute lege hori inongo kontsentsurik gabe onartu dutela. Erabateko inposaketa izan dela, beraz. Era berean, esan dute haren justifikazioan eta diseinuan behar pedagogikoak eta sozialak ez direla inondik inora kontuan izan, eta azken urteetan hezkuntza arloan lortutako aurrerapenentzat atzerapauso nabarmena ekarriko duela.

Espainiako Hezkuntzako ministroak, bien bitartean, Espainiako Estatuko ikasleek PISA neurketetan izandako emaitza kaskarrak argudiatu ditu. Egia da gaur egun PISA dela hezkuntzaren kalitatea baloratzeko neurgailu garrantzitsua –ia bakarra ez bada!–. KHEEko (Kooperazio eta Hazkunde Ekonomikorako Erakundea, OCDE) 45 herrialdeetako ausaz hautatutako eskoletan egun berean egiten duten azterketa horretan (denentzat bera), 15 urteko ikasleen eskola-errendimendua neurtzen du PISAk irakurketan, matematikan eta zientzietan.

Ondoren, herrialde bakoitzeko ikasleek lortutako batezbestekoarekin ranking moduko bat egiten dute. Eta horixe da, batik bat, munduko hezkuntzari buruz herritar gehienok iristen zaigun datu zabalduena.

Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako ikasleen emaitzak Espainiako Estatuko gainerako ikasleen datuekin pilatuta datoz. Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako enak, berriz, Frantziako Estatuko enekin nahasten dira.

Seguruenik gehienok badakigu zerrenda horretan Finlandiak lortutako postu onaren berri, aspalditxotik hara begira jarrita baitaude hezkuntza aditu asko. Frantzia batezbestekoan dago eta Espainia, aldiz, esanguratsuki azpitik, hala nola Europar Batasuneko herrialdeen batezbestekotik ere.

Ez da lan erraza Euskal Herriko ikasleen emaitzak bi multzo handi horietako emaitzetatik banatzea. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikasleek 2012ko neurketan lortutako emaitzak KHEEko batezbestekoa baino esanguratsuki hobeak izan dira. Hori lehen aldiz gertatu da, eta aurreko neurketetan lortutako emaitza onen segida da.

Beraz, ikasturte honen hasieratik Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako eskoletan aplikatzen hasi den lege lauso horrek zein gorpuzte eta eragin izango duen jakin ez arren, bistan da jendarteak dituen beharrek eta PISA neurketen emaitzek ez dutela justifikatzen jendartearen eskakizunen aurka doan hezkuntza-eredu hori. •



Hezkuntza komunitateak behin eta berrir salatu du LOMCEa.

Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS

{ koaderno } Iker Barandiaran

Kable batetik zintzilik

O rain dela 15 urte izan zen. Oso ondo gogoratzten dut. Ez zait ahaztuko. Egunkari honetan lan egiten nuen eta lagun batek Grosen zeukan tabernan kafea hartzen nengoen. Korrika eta presaka tabernara sartu zen. Mehea eta luzea zen. Sakelako telefonoa eskuetan altxatuta zerbitzariari presaz erakutsi eta aurpegi larriz indar gabe gelditutako aparatu pisutsu hura kargatzeko kablerik ote zeukan galdetu zion begi-zuloak agerian utziz, izerdi patsetan. Larria zen jonki haren egoera eta kable hark baldintzatzen zuen ezinegona agerikoa zen.

Luzaroan ahalegindu nintzen eszena hura burutik kentzen, baina ez zen erraza izan. Handik hilabete gutxira nire bizitzako lehen sakelakoa, Nokia pisutsu bat, eskuratu nuen. Bueno, eskuratu baino, GARA egunkariko gure arduradunak taldekoei aparatu bana ekarri zigun, edozer balego 'lokalizable' egon gintezen.

Etorriko zitzaiguna aurrera-tzeko gai ez izan arren, ez zitzaigun ondo iruditu eta bizpahiru egunetan planto eginez itzalita izan genituen guztiok; edo ia guztiok, gutako bati sintonia plano hark autobusean jo eta luzaroan lotsatuta egon baitzen. Eta ez zen gutxiagorako: gogoan dut autobusbatean bizi zen lagun batek halabeharrez sakelako bat erosi behar izan zuela –ia

behartuta– eta haren aparatuekin kalean!! lehen aldiz hitz egin nuenean lotsaz jota non sartu ere ez nuela jakin.

Uda hartan Portugalera jo nuen oporretan eta zur eta lur gelditu nintzen hango hirietan jende guztia leku guztietan sakelakoekin hitz egiten ikusita. Horien artean, ez zait ahaztuko terraza batean bikote gazte bat jarrita eta biak aldi berean telefonoz hitz egiten ikustea. Giza-inkomunikazioaren muturra iruditu zitzaidan. Inozoa ni!

Bestalde, orain gutxi jakin dut –lagun batek ikusita– Kenyan bizi diren masaiek ere 'taparrabos'-az eta matxeteaz gain, sakelakoa eramaten dutela ia guztiek. Dena den, egiari zor argitu beharra dago herrialde horretan, beste askotan bezala, kable bidezko telefonoaren azpiegitura ezartzea baino merkeagoa eta errazagoa omen dela sakelakoena bideratzea.

Lanean oparitutako Nokia hark urte asko eman zituen nirekin, ugari. Horren arrazoietakoa bat izango zen, ziurrenik, itzalita sasoi luzeak pasatzen zituela, eta ondorioz oso gutxitan kargatu behar izaten nuela. Horren harira,

badut lagun bat urtero ez bada bi urtetik behin bere gurasoek sakelako berria oparitzen diotena non dabilen jakiteko, baina ez ditu telefonoak pizten eta erabili ezean kontratua behin eta berriro eteten diote. Eta ez da txan-txa... "Euskaldunon Egunkaria" itxi zuten ostegun beltz hura, niretzat gogoangarriagoa da aipatutako lagun horrek bere sakelakotik!! deitu zidalako berri hori emateko.

Horretan ere gure ohiturak izugarri aldatu dira, eta sakelakoei esker abantaila asko baditugu ere, benetako beharra ez zena premiazkoa da orain eta are eta lotuago bizi gara, nahiz eta ez jakin zehazki zeri eta zergatik lotuta. Pentsa, nik neuk ere iaz aldatu nuen sakelakoa, berri bat oparitu zidatelako, eta hala lehen aldiz Internet izan nuen poltsikoan. Hala ere, pentsa ze azkar 'ohitu' naizen egoera berrira, 3G gabe egon naizen sasoi batean horren hutsunea sentitzen nuela.

Ez zait ahaztuko terraza batean bi bikotekideak aldi berean telefonoz hitz egiten ikustea. Giza-inkomunikazioaren muturra iruditu zitzaidan. Inozoa ni!

Horregatik neurri batean miresten ditut sakelakorik ez dutenak edo sakelako telefonoa izan arren, kalera ateratzen ez dutenak; telefonoa behar dutenean bakarrik erabiltzen dutelako eta ez dutelako nahi uneoro 'lokalizable' egon. Nik ez nuke horrenbeste esango, baina lagun batek orain dela urtebete esan zidan poltsikoko telefonoan Internet daukanetik txarrago bizi dela, hainbeste mezu, ohar eta bestelako jasotzeak gehiago aztoratzen duela.

Lagunaren egonezinak zerikusi zuzena du guk gizar-teari eta gure buruari sortarazi diogun presaren kontzeptuekin: guztia egin behar da oraintxe bertan, ezin dugu itxaron erantzuna jasotzeko, egin duguna zabaltzeko, informazioa jaso edo zabaltzeko... Guk geuk aztoratzen dugu gure burua, izugarrizko presa eta 'horegon-beharra' ezarritik, eta sakelakoa indar gabe geldituz gero ez gara ezer. Biluzik gaudela uste dugu, zentzurik eta benetako garrantzirik ez badu ere. Gutxienez, Donostian ikusi nuen jonki hark bazekien zeren behar larria zuen. •

«Danborrada mistoa da, baina ez parekidea, emakumeek ez baitute baldintza berdinetan parte hartzen»

BEATRIZ MORAL
MARGARET BULLEN
ANTROPOLOGOAK

Jaia gauza serioa dela sinetsita, Donostiako Danborrada lupaz begiratu dute eta berdintasunak eskuratutako eta eskuratu beharreko espazioak ikusarazi dituzte.

oihana.lorente@gaur8.info



Argazkiak: Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

Danbor hotsek Donostia konkistatuko dute asteartean. Egunerokoa eten eta jaiak hartuko du protagonismoa 24 orduz. Antropologoak dira Beatriz Moral (Donostia, 1965) eta Margaret Bullen (Ingalaterra, 1964) eta urte eta erdiz danbor burrunbaren erdigunean sartu eta berdintasunak Donostiako danborradan duen espazioa arakatu dute. Emaizta «Emeki-emeki, berdintasunezko danborradarantz» liburuan jaso dute eta oraindik ere argi bezainbeste itzal daudela ondorioztatu dute.

Egun, ikerketako datuen arabera, danborraden %90 mistoak dira.
Begoña Moral. Mistoak bai, baina, ez parekideak.

Zergatik diozue hori?

B.M. Parte hartzen duten emakumeek ez dutelako gizonen baldintza berdinetan parte hartzen. Kuantitatiboki sekulako alde dago, adibidez, parte-hartzaile guztien herena baino ez dira emakumeak.

Zein da Donostiako danborradaren argazkia berdintasunaren ikuspegitik?
Margaret Bullen. Aniztasun handia dago, gauzak ez dira linealak. Gizartearen isla izan ohi da jaia, baina danborradan ez dago ispilu bakarra. Historia aurrrera joan ahala aldaketak gertatu dira, baina baita erresistentziak ere. Ez da Irun edo Hondarribiko alardeetan bezala, han irudi bakarra dago, hemen danborrada asko daude eta baikoitza bere neurrian joan da aldatzen. Ez doaz denak batera, aldaketa pixkanaka egin da eta, noski, instituzioen ekarpena oso garrantzitsua izan da.

Alde handia dago, danborrada batetik bestera?
B.M. Bai, sekulakoa. Oraindik badira erabat maskulinoak direnak. Horietan emakumeek ez dute tokirik eta guk ikerketa egin genuean, hau da 2013an, 13 ziren.
Badira maskulinoak zirenak eta haien kasa ala Berdintasun Legeak aginduta misto bihurtu direnak ere. Horietan, oro har, emakumeak egon bai, baina murrizketa askorekin sartu dira. Gizonak baino gutxiago dira eta askotan kopuru hori betetzeko zozketa bidez sartzen dira. Gizonak, aldiz, beren postua dute eta mantentzen dute, antzinakotasuna oso baloratuta dago eta haien kasuan. Gainera, danborrada antolatzen duen elkarteak, elkarte gastronomiko klasikoa bada, bertan emakumeek ez dute lekurik eta, beraz, danborradaren beraren antolaketan ere ez.
M.M. Badaude, baina, misto eta parekideak direnak, elkarte gastronomiko parekideak edo bestelako guraso elkarte, kultur elkarte edota kirol elkarteetako danborradak, adibidez.
Bota dezagun begirada atzera. Emakumeen parte-hartzea, de-



bekaturik bederen ez da inoiz egon, ezta?

B.M. Ez, debeku formalik ez da inoiz egon, baina beharrik ere ez zegoelako. Erabat onartuta zegoen emakumeek ezin zutela bertan atera eta hori ez zen kuestionatzen ere. Elkarre gas-tronomikoekin ere berdina gertatzen da, idatziz ez da inon jasotzen emakumeen debekua, egon, baina, badago.

Noiz atera zen lehen emakumea Danborradan?

B.M. Egun ezagutzen dugun Danborradan 1980. urtean atera zen lehen emakumea, Kresalako danborradan, hain zuzen ere. Jakin badakigu, baina, aurrekariak izan zirela, nahiz eta data zehatzak ez ezagutu. 1927 eta 1936. urteen artean kokatutako argazkiak aurkitu ditugu eta bertan emakumeak ageri dira, ez bakarrik kantinera moduan, gainera. Errepublikako lehen urteetan jazo zen emakumeen lehen presentzia Danborradan, eta, dirudienez, nahiko kritikatuak izan ziren.

Garai horretan, Danborrada eta inauteriak batera zihoazen, danborradarekin hasten baitziren orduan inauteriak eta garai horretan moztortuta ateratzen ziren danborradetan. Inauteriak dira, beraz, danborradaren jatorria, poliki-poliki, baina, Danborrada inauterietarik bereizten eta bere nortasun propioa har-

tzen joan zen. Orduan hasi ziren militarrez janzten edota iringileak sartzen...

Gerra Zibilak eta Frankismoak Danborrada bera eten zuten.

B.M. Bai, ez zegoen Danborradarako giro handirik eta urteren batean danborrada bat bera ere ez zen atera. Honek ere emakumeen parte-hartzean eragin zuzena izan zuen. Eboluzioa, inboluzioa eta erreboluzioa izan zirela esaten dugu guk. Eboluzioa, Errepublikara garaian gertatu zen; inboluzioa, aldiz, Gerra Zibil eta Frankismoan, eta, iraultza, azkenik, Kresalako emakumeen eskutik.

Nola izan zen Kresalako emakumeen parte-hartzea?

M.M. Kresala elkarre kultural bat da eta jai askotan parte hartzen zuen garai horretan ere, beti, baina, emakume eta gizonak batera aritzen ziren, orduko Danborradan izan ezik. 1980. urtean, elkarteko emakumeek Danborradan ere parte hartu nahi zutela esan, eta, elkarre barruan eztabaidatu ondoren, hala erabaki zuten. Bertan ere eztabaida piztu zen eta kide batzuek elkarre utzi zuten.

Emakumeek parte hartzea eta danborrada mistoa bihurtzea erabakita, Kresala elkarre alkatereangana joan zen, euren asmoa agertzera eta, dirudienez, alkatearen oniritzia jaso zuten.

«Eboluzioa, inboluzioa eta erreboluzioa izan ziren. Eboluzioa, Errepublika garaian; inboluzioa, Gerra Zibil eta Frankismoan, eta, iraultza, Kresalako emakumeen eskutik»

Alde Zaharreko danborrada tradizionalak, ordea, ez zuten begi onez ikusten eta emakumeak ateraz gero haiek ez zirela aterako esan zuten. Alkateak ez zuen atzera egin eta eurak ateratzen ez baziren hiriko bandera Kresalak berak igoko zuela esan omen zuen. Eta, noski, Alde Zaharreko beste danborradek ez zioten ateratzeari uko egin.

Emakumeek presentzia fisikoa eskuratzeaz gainera, iruditerian ere eragin zuen Kresalak.

B.M. Bai, halaxe da. Javier Sada kronistarengana jo zuten Kresalakoe, emakumeak Danborradan nola atera aztertzeke. Mitak dioenez, goizean goiz ur bila iturrira zihoazen iringileak, soldaduen danborrak entzun orduko, soinean zeramatzaten upelak jota imintzioka hasten omen zitzaizkien. Handik dator Danborradaren mitoa. Ur bila zihoazenen artean emakumeak ere egongo zirenez, urketarien figura sortu zen. Garaiko emakumeek ura biltzeko erabiltzen zuten ontzia, suila, irudikatzen du urketarien barrilak eta janzkera ere berezia dute, gonarekin.

M.M. Estrategia honek bere alde ona du, danborradan emakumeen parte-hartzea sustatu eta mitoa emakumearen rola ikusarazi zuelako, baina, gerora muga ere bihurtu da.

Emakumea urketarien postura mugatu izan da hala?

M.M. Denetarik dago, Donostia-ko danborrada oso anitza delako. Danborrada batzuetan ez da emakumerik ateratzen edo urketari gisa bakarrik ateratzen da; beste batzuetan, ordea, danborrarekin ageri da, baita aginte postuetan ere. Danborrada nahiko hierarkikoa da: danbor nagusia –askotan, bizitza osorako postua izaten da–; danborrak –soldaduak baldin badaude, haiek dira danborra jotzen dutenak–, barrilak –sukaldariak– eta urketariak –beti emakumeak–. Zenbat eta gorago joan hierarkian, orduan eta emakume gutxiago topatzen ditugu. Sukaldariena da talde mistoena.

2006. urtean beste mugarri bat idatzi zuen Historiak. Lehen aldiz, emakumeak banderaren igoeran eta jaitsieran suila jotzen agertu ziren.

B.M. Bai, halaxe da, 2006. urtetik emakumeek oholza gainean suila jotzen dute. 2006. urte hartan, Gaztelubide elkarrearekin batera, Intxaurrondoko Artzak Ortzeok elkarteko hamabi emakume igo ziren oholza gainera. Ikerketan jakin dugunez, baina, gau hartan ez zuten elkarrekin afaldu eta emakumeak ez ziren ezta elkarreko komunera ere sartu.

Afariari kapitulu oso bat eskaini diozue.



B.M. Bai, eta gau hartako menuak konparatu ditugu. Gaztelubidekoek urtero prentsan agertzen diren afari horietako bat jan zuten bitartean, oholtzara haiekin igo ziren emakumeek 12 euroko plater konbinatu bat afaldu zuten.

Gauza jakina al zen hori?

M.M. Guk dakigula, ez. Hala eta guztiz ere, oso galdera eta kezka gutxi planteatzen dira emakumeen parte-hartzearen inguruan. Asko jota desfilean parte hartzeko moduak pizten du arreta, ez inguruan gertatzen diren kontuek. Ez antolaketak, ez afariak... Gauza horiek, baina, badute garrantzia, bestela zergatik dakigu denok, urtero, Gaztelubideko afari menua zein den?

1987. urtean Pilar Mirok Urrezko Danborra irabazi osteko afaria ere polemikoa izan zen.

B.M. 1934. urtetik, gutxienez, eta 1989. urtera arte, udal ordezkariak eta ondoren Urrezko Danborra jasotzen zutenek Gaztelubiden afaltzen zuten, Donostia egunaren bezperan. Noski, sari-tua emakumea ez zenean. 1987. urtean Pilar Miro zinemagileak jaso zuen Urrezko Danborra. Saria jaso zuen historiako hirugarren emakumea izan zen eta alkateak Gaztelubiden afaldu zuen bitartean, Mirok Arzak jatetxean afaldu zuen, Udaleko hainbat zi-



negotzirekin eta alkatearen emaztearekin. Debeku horrek eztabaida piztu zuen kalean, izan ere, Udalean zeuden emakume ordezkariak ere debekatuta zuten afarian parte hartzea.

Bi urte ondoren, 1989an, Gaztelubideko afari ofizialen gain-behera etorri zen. Izan ere, Gabriel Celaya poetak Urrezko Danborra jaso eta bere tradizioa emaztearekin ospatzea zela esan ondoren, uko egin zion Gaztelubiden afaltzeari.

Instituzioek lan berezia egin al dute emakumeen parte-hartzea sustatzeko?

B.M. Odon Elorza nahiko saiatu da Danborrada aldatzen eta

pauso garrantzitsuak eman ditu. Hiru mugarri daude: 1998an, Donostiako Udala akzio positiboak egiten hasi izana; 2005ean, Berdintasun Legea onartzea, eta, 2008an, danborrada baztertzailerei diru-laguntzak ukatu izana.

Zein ekintza positibo egin ziotuen Udalak?

B.M. Banderaren igoera eta jai-tsiera oso une garrantzitsuak dira, eta oholtzan emakumeak ez zeudenez, 1998an balkoira igo zituen alkateak lehen emakumeak. Zehazki, Donostiako Orfeoiko bi emakumek igo zuten Donostiako bandera urte hartan. 1999. urtean, alkateak

beste danborradetako ordezkariak gonbidatu zituen oholtzara gainera, bakoitzak bere danborradako bandera eraman zezan. Horietako batzuk emakumeak zireneenez, oholtzara gainean emakumeen presentzia ziurtatu zen.

Erakundeek, baina, badituzte oraindik etxeko lanak Urrezko Danbor eta Hiritar merezimenduaren dominekin, ezta?

M.M. Bai. Historian emandako Urrezko Danbor eta Hiritar merezimenduaren dominak aztertuta, hurrenez hurren, kasuen %8,5 eta %21ean baino ez dituzte emakumezkoek jaso sari horiek.

Haur Danborradan ere neskatuen parte-hartzea ez da betiko kontua.

B.M. Ez, ezta gutxiago ere. Ez dakigu, gainera, zehazki zein urtetan hasi ziren neskatoak Haur Danborradan ateratzen. Eskoletako danborradak dira gehienak, eta beraz, 1970eko hamarkadan hezkuntza mistoa bilakatu eta eskola gehientsuenak mistoak zirenean hasi omen ziren neskak danborrarekin ateratzen. Hala eta guztiz ere, orduan ez zen nesken presentzia baimentzen. Hasieran, oharkabean ateratzen ziren, belarritako gabe eta ilea bilduta. Neskak soldadu gisa ateratzen zituzten eskolei diru-laguntza ukatzen zien eta Udalak. Debeku hark indarrean zirauen azken urteetan —80ko hamarkadaren erdialdera arte—, nesken integrazioa modu ez-ofizialean eta arian-arian egiten ari zen.

M.M. Elkarrizketatutako irakasle batek gogora ekarri zuenez, garai horretan neskatoen debekua gehiegizkoa zela salatzeke, desfile erdira atera eta neskatoei ilea askatu zieten. Haur Danborradako antolatzaileei “orain, nahi baduzue, erretiratu!” esateko modu bat izan zen.

Aurrerapausoak eman dira ondoren ere. Haur Danborradako lehen neskato jenerala 2013an etorri zen eta, egun, La Bella Easoren karroza eta figura aldatzen saiatzen ari dira.



Nola sortu zen ikerketa hau egiteko asmoa?

B.M. Donostiako Udaleko Berdintasun Sailak beka bat ateratu zuen 2013. urtean. Berdintasun alorreko lehen beka serioa izan da eta asmoa bi urtetik behin ateratzea omen da. Apustu gogorra izan da Udalarentzat, beka oso hornituta dago, eta, gaiari dagokionez —berdintasuna eta jaia, hain zuzen ere—, ikuspegi ezberdinak daude. Askok ez dute hori ikertzeko beharrik ikusten eta Udalak apustu potoloa egin zuen horren alde.

Sei ikertzaile aritu gara lan honetan. Ni proiektuaren koordinatzailea izan naiz eta nirekin batera Margaret Bullen, Xabier Kerexeta, Savina Lafita, Silvia Loza eta Luz Maceira Ochoa. Kerexeta eta Loza historialariak dira, eta besteak antropologoak gara. Urte eta erdiz egon gara lanean. Lan potoloa izan da.

Zein metodologia erabili duzue ikerketa egiteko?

M.M. Bi lerro nagusi izan ditugu. Kerexeta, batez ere, historiari arduratu da eta beste guztiak, etnografiaz. 2013. urteko Danborrada egunean, behaketa parte-hartzailea egin genuen, hori izan zen gure abiapuntua. Donostia sei zonaldeetan banatu eta zona bakoitzaren ardura batek hartu zuen. Zonalde eta danborraden profilen arabera egin genuen banaketa. Beti mistoa, ha-

sieran gizonezkoena edo oraindik ere gizonezkoena den aintzat hartuta, baita elkarte mota ere: gastronomikoa, kirol arlokoa, guraso elkarte... Entsegutan eta Donostia eguneko 24 orduetan aritu ginen behaketa egiten. Antropologian lagin txiki-ekin lan egiten dugu eta zuzenean pertsonekin aritzen gara. Hortaz, elkarrizketa zabalak ere egin ditugu, 20 bat lagunekin aritu gara elkarrizketa hauek egiten.

Garrantzitsua al da jaia ikertzea?

B.M. Alde batetik, ez zaio garrantzirik ematen, baina beste alde batetik, bai. “Festa ondo pasatzeko zerbait da, zertarako egin ikerketa bat?”. Hori da askotan entzun behar izan duguna. Festak garrantzirik ez duela dirudi, baina, aldiz, festan gaudenean begirada guztiak, foku guztiak haren gainean daude. Egunkariak, irratia... pertsona ezagunak... Festa garrantzitsua da. Hiria eta auzoa egiteko balio du jaiak. Beraz, hiritartasuna egiteko garrantzitsua bada festa, nola ez da izango ikertzeko garrantzitsua?

Festa, azkenean, erritual bat da, oso gauza serioa, jende mordoa mugiarazten du eta gizartearen isla da. Festari zuzenean begiratu, gizartearen isla ikusten da, gizartea eszenatoki batean jarri eta gizartea bera errepresentatzen da. Gizartearen gatazkak

«Festari zuzenean
begiratu,
gizartearen isla
ikusten da, gizartea
eszenatoki batean
jarri eta gizartea
bera
errerepresentatzen da
jaian»

ere bertan ikusten dira, baita aldarrikatzen den gizarte eredu ere. Ikurrinaren legalizazioaren aldarrikapena, presoak, Reala... presente daude jaian.

Gizartea aldatzen da eta horren heinean jaia ere bai. Beste norabidean ere gertatzen da, jaian aldaketak badaude horrek gizartean eragina du.

Zuena dibulgaziozko lana da.

M.M. Bai, urrian aurkeztu genuen ikerketa eta danborrada guztien esku jarri du Udalak, bai eta Udaletxeko webgunean den eskura ere.

Zein gomendio egiten duzue ikerketa egin ostean?

B.M. Liburua irakurtzea da guk egiten dugun gomendioa. Oso ideia sinpleak eta fundamentu gabekoak erabiltzen dira emakumeen parte-hartzearen kontra. Gainera, ezezagutza handia dago. Bakoitzak bere danborrada ezagutzen du, baina ondokotan zer gertatzen den ez daki.

Jendeak, gainera, desfilean bakarrik jartzen du arreta, ez inguruan gertatzen den guztian. Are gehiago prentsak! Konstituzio plazan du foku bakarra. Guk arreta bestelako danborradetan jartzeko eskatzen diogu prentsari. Zentroan klasikoenak daude, baina Donostia askoz gehiago da. Esperientzia parekideetan arreta jartzeko eskaria egiten dugu, beraz.

1: «Lord Weelingtonen gudarostea», 1927 eta 1929 artean.

2: Unión Artesanako turkiar danbor-joleak. 1929 eta 1937 urteen artean.

3: Kresalako danborrada. 1980. urtean mistoa bihurtu zen lehen danborrada.

4: Eskaut Gia. 1982. urtean misto gisa jaio zen lehen danborrada.

5: 2006. urtean emakumeak Konstituzio plazako oholtzara igo ziren suila jotzera.

6: Haur Danborradan, 2013. urtean, Sara Huegun izan zen lehen neskato jenerala.

KUTXATEKA, Jon URBE, Andoni CANELLADA, Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS





Sagardoaren txinpartak makina bat baso blaituko ditu datozen asteetan, txotxak iraun bitartean. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

SAGARDOA

Bertako ekoizleen produktuekin saskia betetzeko apustuarekin segituz, Eroskik sagardo denboraldia hasi du

 **KONTSUMOA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Txotx denboraldia hasi da. Urtez urte, hasiera ekitaldiak izaten dira han eta hemen, sagardogileentzat hain garrantzitsua den eta euskal jendartean hain errotuta dagoen ohiturari hasteko baimena garbi emateko edo. Eroskik ere inaugurazio propioa egin zuen atzo Urbilen, sagardoaren lurraldearen bihotzean.

Eroskik ere egin du sagardo denboraldiaren hasiera propioa. Andoni Egañaren bertsoz abiatu zuen atzo Urbilgo merkataritza gunean, sagardoaren lurraldearen bihotza osatzen duten Usurbil, Hernani eta Astigarragatik gertu. Inguruko sagardogileek ere parte hartu zuten hasiera ekitaldian. Lakua-

ko gobernua eta Eroskik 2013. urtearen amaieran akordioa sinatu zuten, lehen sektoreko bertako ekoizleei bultzada emateko konpromisoa hartuta. Eta konpromiso horren baitan kokatzen da Eroskik bertako sagardoaren alde emandako pausoa.

Urtero Eroskik milioi bat euro baino gehiago inbertitzen du bertako sagardoaren erosten. 2014. urtean, gainera, erosketa horiek %4 gehitu dira, kontsumoa igotzen ari den seinale. Asun Bastidak, bertako produktaren zuzendari komertzialak zera azaldu du: «Sagardoa gure merkataritza sare guztian eskura dagoen produktua da. 2014. urtean bertako ekoizle gehiagorekin lan egin dugu, %6 gehiagorekin, eta guztira 20 marka baino gehiago merkaturatu ditugu. Tartean, gure marka propioa duen Eroski sagardoa,

Isastegi sagardotegikoa». Hartara, atzo Urbilen izan zen denboraldi hasierako ekitaldia sagardoa bultzatzeko kanpaina zabalago baten baitan kokatzen da. Bide horretan, sagardo dastaketak izango dira gaur arratsaldean eta datozen bi asteburuetan Eroskik Arrasaten, Urbilen, Eibarren, Ordizian eta Tolosan dituen hipermerkatuetan.

BERTAKO EKOIZLEEKIN LOTURA

Eroskik 245 denda ditu Euskal Herrian eta 450 euskal hornitzailearekin lan egiten du. Bide horretatik urtean 10.000 produktu inguru merkaturatzen ditu, urteko 400 milioi euroko erosketak eginez. Eroskiren politika komertziala «nekazaritza elikaduraren sektorearen iraunkortasuna eta ekoizpen sarearen aniztasuna» ziurtatzea eta

bultzatzea dira eta horretarako bertako ekonomien alde egiten du, horien inguruan aberastasuna sortzeko asmoz. «Kontsumitzaileek bertako produktuei balioa ematea nahi dugu, izaera propioa daukatelako, gure gastronomia kulturaren ikono direlako eta sektore baten biziraupenerako ezinbestekoak direlako», nabarmendu du Bastidak. Bide horretan sinatu zuten akordioa Lakuako gobernua eta Eroskik 2013. urtean, lehen aipatu bezala.

Akordio horren baitan, 2014. urtean barna hainbat ekintza eta kanpaina bultzatu ditu Eroskik.

Batetik, Euskal Okela ziurtagiria duen behi-haragiaren promozioa eta merkaturatzea bultzatu ditu, Hazi eta Ekain fundazioekin lortutako akordio bati esker. Bide beretik, Euskal Txerria ziurtagia duten produktuen aldeko apustua egin du.

Bestetik, artisau eran egindako arrantzaren aldeko konpromisoa areagotu du euskal lonjetan: 2014. urtean barna bikoiztu egin ditu berdelaren erosketak euskal kofradietan eta gure portuetan deskargatutako hegaluzeen erosketa %40 handitu du.

{ Sagarretik }

EDOZEIN URTE
SASOIRAKO
TXINPARTA

Sagardoa sagar muztioaren irakite edo fermentaziotik sortutako **edari freskagarri alkoholikoa** da. Behin botila irekita, denbora tarte laburrean kontsumitzea komeni da, 10-13° C artean, freskoa. Ireki aurretik, botila buruz behera jarri eta astindu. Edalontzitik 20-30 zentimetrora zerbitzatu, sagardoa hautsi eta txinparta ateratzeko. Edalontzia zabala eta kristal finekoa izatea komeni da. Trago batean edango den sagardo kopurua zerbitzatu aldiro

Jatorri izendapena duen Idiazabal gaztaren alde ere egin du. Gaur egun Idiazabal markarekin merkaturatzen den produktua-ren %10 Eroskiren bidez egiten da eta Artzai-Gaztarekin daukan akordio bati esker ehun artzain baino gehiagok artisau eran ekoizten duten gazta ere saltzen du. Gainera, 2014. urtean Idiazabal jatorri izendapena duen gazta propioa merkaturatu du Eroski Selektiak.

Eusko Label izendapena duen Arabako patataren salmentak %10 igo dira Eroskiren sare osoan.

Txakolinaren merkaturatzean ere jarri du indarra bukatu berri den urtean. Jatorrizko izendapena duen txakolinaren merkaturatzean indarra jarri du eta marka propioa garatu du.

Arrautzen sektorean ere sartu da, eta Eroskik ziurtatzen du Euskal Herriko bere dendetan saltzen diren arrautzak bertakoak direla, sektoreari bultzada emate aldera.

Azkenik, Nirea akordioa izene-ko proiektura lotu da Eroski, Eusko Jaurlaritzak lehen sektorea bultzatze aldera martxan jarritako programara. Eta 2014. urtean, lehenengoz, Jasangarritasunaren Saria antolatu du.



Urdaira sagardotegian gaur hasiko da aurtengo txotx denboraldia. Alboko argazkian, Patxi Azkonobieta, Urdairako sagardogilea.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

PATXI AZKONOBETA

URDAIRA SAGARDOTEGIKO SAGARDOGILEA

«Gustatuko litzaidake ospakizunetan mahaian sagardo botila bat egotea»

Nolako denboraldia espero duzue?

Tira, jendea hasi da enkarguak egiten eta denboraldi ona egitea espero dugu. Oraingoz giroak ere erantzuten du eta dena ondo joatea espero dugu. Baina seguru ezin da jakin, urte guztiak desberdin joaten dira eta.

Sagardoa prest, nolako sagardoa da aurtengoa?

Sagardo politik izango dira, agian lehengo urtekoak baino mehexeagoak, baina gustu ederreko sagardoak.

Txotxa hilabete batzuetako kontua da, baina botila urte guztian izaten da salgai. Nolako garrantzia dauka txotxak?

Guk batez ere bodegarako egiten dugu lana, horregatik botila oso garrantzitsua da guretzako. Urteko hamabi hilabeteetatik bederatzitan botilatik bizi behar dugu. Txotxa oso ondo etortzen zaigu gure izena zabaltzeko eta gure produktua ezagutzera emateko, baina gu botilatik bizi gara urtean zehar.

Zuen sagardoa Eroskin eros daiteke, eskura dauka kontsumitzaileak.

Guretzako Eroski plaza oso garrantzitsua da. Guk hamabost urte daramagu lanean Eroskirekin, eta primerakoa da harremana. Salmentarako plaza oso ona da Eroski.

Azken urteotan lortu da sagardo botila etxeetara sartzea, ezta?

Bai, batez ere uda partean jendeak hartu du ohitura etxean sagardoa edatekoa. Jende gazteari sagardoa gustatzen zaio eta hori garrantzitsua da. Gustatuko litzaidake, hala ere, jendeak neguan ere sagardoa edateko ohitura gehiago hartuko balu, baita Gabonetan eta halakoetan ere. Ospakizun bereziak ditugunean mahaian sagardo botila bat izatea gustatuko litzaidake. Egia da gero eta gehiago izaten dela, baina ohitura izatea gustatuko litzaidake, garai batean gure baserrietan izaten zen bezala.

Txotxa: jatekoa, edatekoa, gehiegikeria batzuetan... Nola joan behar da sagardotegira?

Egia da guk denetarik ikusi izan dugula. Hala ere, azken urte hauetan gauza suabeago dagoela ematen du. Sagardotegiak joan eta ondo pasatzeko tokiak dira; bertako janak eta edariak gozatu eta jendearekin harremanak izateko toki ona da. Baina ganberrismoa aparte utzi beharra dago. Sagardotegien inguruan 'dena libre da' irudia zabaldu izan da, hasierako urteetan batez ere. Edatea libre da, bai, baina norberak hartu behar dio neurria. Askatasun hori gozatu behar da, baina besteen askatasuna zapaldu gabe, ezta?



SASOIKOA

SAGARDOA



Urnietako tailer txikia eta betaurrekoen erakustokia, hori ere eskuz egina. Betaurreko graduatuak eta eguzkitakoak ikus daitezke. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

infraganti IÑAKI URIBESALGO

Puntako teknologiak eta materialak eskuragai ditugun une honetan, atzera begiratzeko joera dago, *vintage* delakoa modan baitago. Egurra *vintage* materiala dela esan dezakegu, are gehiago eskuz eta mimoz lantzen bada. Material natural honekin ondo ikusteko eta dotore jantzeko betaurrekoak sortzen hasi zen Uribesalgo, ia kasualitatez.

Arotza da Iñaki Uribesalgo. Orain, Urnietako etxeko garajearen muntatu duen tailer txikian egiten du lan, baina 14 urte zituela hasi zen lanbide hau ikasten, bere maisuarekin. Hark erakutsi zizkion egurraren sekretuak eta teknikak. «16 urtera arte maisu on batekin izan nintzen. Garai haietan ohikoa ez zen maitasunez eta errespetuz tratatu ninduen. Gero beste aroztegi batzuetan izan nintzen, baina jada

ez nuen ezer ikasi, sukaldeak eta tarimak muntatzen ibili nintzen. Ni beti bizi izan naiz krisian eta zegoenari heltzen nion, baina tailerra itxi zuten eta betaurrekoen kontua kasualitatez agertu zen», dio artisauak. Elena Ibañez bere bikotekidearekin batera, Errioxako Canales de la Sierra herrian etxe oso zahar bat erosi zuen, jakinda egitura bota beharko zutela eta berriro eraiki. Ondo zeuden egurrak mantendu eta gainerakoak aldatu behar zituzten, baina, nondik atera kalitatezko

egurra? Bada, ba al da basoa baino iturri hobeagorik? Basozainei bertan zegoen egurra jasotzeko baimena eskatu eta etxea berreraikitzeke erabili zuten. «Astebete eman genuen bertan eta oso eguraldi txarra egiten zuen. Maisuarekin ikasitako egurra tolesteko teknikekin eta teknika berriekin saltsan ibiltzen hasi nintzen eta bat-batean betaurrekoen itxura zuen pieza bat lortu nuen. Orduan marraztu nuen lehenengo betaurrekoa eta egurrera eraman nuen eta, hara, diseinuko betaurrekoak

nituen! Izugarri gustatu zitzaidan». Lehenengo betaurreko haien diseinua guztiz eskuz egin zuen. Paper bat tolestu eta betaurreko erdia marraztu zuen. Ondoren, moztu egin zuen eta papera berriro destolestean bazuen betaurrekoa. Logikoki, neurriak ez ziren zehatzak eta kristalak jartzera joan zenean optikariarentzat arazo bat izan zen. Pixkanaka, ekoizpena hobetzen joan zen eta orain ordenagailu bidez diseinatzen ditu betaurrekoak. Hori da eskuz egiten ez duen gauza bakarra. «Makina asko ditut, baina azkenean dena asko sinplifikatzen da. Hasi nintzenean makinak erosten joan nintzen, probatzen joateko eta azkenean konturatu naiz erdia soberan dudala», kontatu digu bere tailerreko makinak erakutsiz. Lixatzeko edo mozteko erabiltzen ditu, besterik gabe. Uribesalgorenak ez dira merkatuan dauden egurrezko betaurreko bakarrak, baina bai guztiz artisau erara egindako bakarrenetarikoak. Gainerakoek laserra edota kontrol numerikoko fresatzaile makina (CNC) erabiliz egiten dituzte. Artisau itxura galdu egiten da honela, nahiz eta eskuz lixatu eta bernizatu. «Errioxan, betaurrekoekin lanean jarraitu nuen eta etxera itzultzean Interneten bilatu nuen ea egurrezko betaurrekoak ba ote zeuden. Ikusi nuen Alemanian eta Italian bazeudela egileak eta etxea eraikitzen jarraitzea erabaki genuen. Geroxeago, Interneten berriro begiratu nuen, ikusi nuen Katalunian eta Galizian sortzaile berriak zeudela, eta pentsatu nuen: 'Egurrezko betaurrekoen hodei toxiko bat pasatu ote da?' Desanimatu egin nintzen, nire ideia ez zelako berritzailea, baina euren teknika laser edo CNC bidezkoa zenez, aurrera jarraitzea erabaki nuen». Uribesalgoren lan prozesua luzea eta zehatza da. Basoko egurra erabiltzen badu, hilabete asko emango ditu betaurrekoak lortzen dituen arte. Egurra uretan jarri behar da, lehenik, erre-txina kentzeko, gutxienez sei hi-


labete. Gero, lehortzen utzi eta xafletan moztu eta egosi. Hortik aurrera hasiko da materiala lantzen. Ordura arteko denbora luzea denez, basoko egurra erabiltzen duen arren, erositako xaflak ere erabiltzen ditu. Hone-la, prozesua azkartzen du eta mota asko lor ditzake. Xafla duenetik hiru astetan aritzen da lanean (hiruzpalau betaurreko egin ditzake denbora horretan). Betaurrekoen forma diseinatzen du, egur bloke batean zizelkatu eta prentsa moduan erabiltzen du, tartean xafla jarrita. Denbora pixka bat pasatzen denean, piezak pegatzen hasten da –bakoitzak 25 pieza ditu, egurrezko eskudrak barne–.

BETAURREKOAK, NAHIERAN

Betaurrekoei Nardaia marka jartzea ahalbidetuko dion zigiluaren zain dagoen bitartean, Uribesalgo merkatuan sartzeko lehenengo pausoak ematen ari da. Ezagutzera emateko, Facebooken profil bat zabaltu zuen pasaden urrian: “El bosque de las lunettes” du izena, Errioxako basoari erreferentzia eginez.

Profil horretan, pixkanaka sortzen ari den betaurrekoak erakusten doa –San Sebastian egunerako zuri-urdin batzuk prestatzen ari da– eta publikoarekin lehenengo harremana egiten du, nahiz eta oraindik ez duen dendarik, ez fisikoa ez Internet bidezkoa. «Webgune propioa izatea garestia da. Etorkizunerako nahia da egur mota, kolore eta diseinu guztien konbinazioa ahalbidetzen duen webgune bat sortzea. Honela, erosleak zuzenean erabaki ahal du zein betaurreko nahi duen», aipatu du. Izan ere, berak betaurreko pertsonalizatuak sortzeko aukera ematen du.

Pagoa, sapeli eta intxaurren-egurrak erabiltzen ditu batez ere, baina azkenaldiko joerei ere jarraitzen die. Adibidez, koloretako betaurrekoak egiten ditu, tindatutako xaflak erosiz, edo zebardunak –marradunak–. Azken hauek ez ditu oso gustuko, herrialde tropikaletan ekoizten direlako eta nahiago duelako bertakoa erabili, baina egurra modu jasangarrian eskuratzen



Uribesalgo bere diseinu bat erakusten. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

duen ekoizle bat topatu du eta harekin egiten du lan. Eguzkitako betaurrekoak ere egiten ditu. «Nik, txikitatik, betaurrekoak eramane ditut eta niretzako egin nahi nituen egurrezko betaurrekoak, ez eguzkitakoak. Merkatu hori da gehien gustatzen zaidana, graduatutako monturarena, baina jan egin behar dugu eta eguzkitakoak ere egiten ditut».

Martxoan langile autonomoa izateko izena emango du eta hiru hilabete igaro behar dira artisautza ferietan parte hartu ahal izateko. Bitartean, artisaua dela frogatzen duen «azterketa» bat gainditu beharko du, baina ez dauka kezkarik. Ferietan ibiltzen hasten denean, negozioa ondo badoa, orain garajea duen tailer txikia handitzeko eta hobetzeko intentzioa dauka. Elenak lagun-duko dio, orain egiten duen bezala, enpresa txiki hori kudea-

tzen. Beste helburuetako bat da tokian tokiko optikekin lan egitea. Bere produktuak saltzeko prest dauden saltokiekin harremanetan jarri nahi du Uribesalgok. Orain arte ez du zorte handirik izan. Optikari batek, kristalak jartzen saiatzean, montura bat apurtu zion eta beste batek barre egin zion. Berari mina eman zion horrek, lana gogoz egiten duelako. «Torlojua kenduz gero, kristala jartzeko malgutasuna dauka. Madrileko optikari batekin jarri nintzen harremanetan eta berak ez zidan inolako arazorik jarri. Orain, berarekin egiten dut lan eta asko laguntzen dit. Hemen badago optikari bat interesatuta, baina oraindik ez da animatzen», komentatu du ilusioz beteta.

Negozioa ondo badoa, familia honen helburua ez da enpresa handitzea, baizik eta bizitzeko

Gauza bat da produktu batek zenbat balio duen eta beste gauza bat zein balio duen. Artisautzaz ari garenean, bere balioak diru balioa gainditzen du

Basoko egurra prestatu eta lantzen duen arren, egur mota askotako xaflak erosten ditu, ekoizpena azkartzeko. San Sebastian egunerako diseinu bat prestatzen ari da, zuri-urdira

te eta ez zaie ezer gertatu, kolorea aldatu zaie, agian, baina zaindu egin behar direla esan nahi dut». Bere betaurrekoek urte eta erdi dituzte eta berriberriak daude, nahiz eta ez dituen gehiegi zaintzen. «Jendeak egitea nahi ez dudana egiten dut; hauekin lana egiten dut, ez ditut babesteko betaurrekoak janzten. Azken finean, nik egiten ditut eta nire kristalak bereziak direnez, ezin ditut bi betaurreko desberdin izan».

Uribesalgoren lanak ez dira futboleko jokatzeko edo ume batentzako. Okasio berezietan dotore jantzi nahi duenarentzat dira, edota egunerokoan itxuroso agertu baina zaintzen dituenarentzat. Bere lagun batek, estreinatu zituen egunean, gainean eserita apurtu egin zituela kontatzen du barrez artisaauak. Edozein betaurrekoren gainean eseriz gero, apurtu egingo dira... baina bestelako probak egin ditu eta badaki bere sorkariekin ohiko kolpe txikiak ondo jasaten dituztela. «Gainera, esan beharrik ez dago nirekin betiko bermea dutela, betaurrekoei edozein gauza gertatzen zaiela ere ahal dudana guztia egingo dudala konpontzeko. Hori da egilea ni izatearen abantaila», aipatu du, 25 pieza txikiak kontatzen duen bitartean.

Umoretsu, proiektu gehiago dituela aitortu du: gaizki ateratzen diren betaurrekoekin, optika bateko erakusleihoan ederto geldituko lirakekeen eskulturak egiten ditu eta noizean behin betaurrekoekin apropos gelditzen diren osagarriak egiten ditu: gerrikoak, lepokoak... Denenak, egurrezkoak. Pedro haurrak urtebete du oraindik, baina pozik ibiltzen da aitaren inguruan jolasean. Ziur pozik ikasiko duela lanbidea. •

Nagore Belastegi Martin

SARE @ N

EUROPA Hauk dira astean sarean ibili diren zenbait hitz:

> Ez zara Charlie

«Je suis Charlie» esaldia bologo dabil azken egunotan. Orain, denak omen Charlie Hebdo. Eta sarean dagoeneko agertu dira ahots kritikoak, «zuek ez zarete Charlie» esatera ausartu direnak. Izan ere, nola atera daitezke adierazpen askatasunaren defendatzaile sutsu gisa aspaldian hori zapaltzen aritu diren agintariak eta kazetariak? Marine Le Pen, Angela Merkel, Netanyahu, Mariano Rajoy... Beren etxeetan defendatzen eta babesten ez duten adierazpen askatasunaren izenean elkartu dira Parisen, besotik helduta. Sarean batek baino gehiagok esan duen modura, “Charlie Hebdo”ko kazetariak burua altxatuko balute portada bat eskainiko liekete, zentsura- tuak izateko arriskuarekin.

> Larrialdia


Pasatu diren Gabonetako oporetan hackerrek Playstation Network eta Xbox Live bideo-jokoak hartu dituzte helburu, eta egun askotan ez dira erabilgarri izan. Horrek haserrea eta frustrazioa eragin ditu bideo-jokoaren erabiltzaileen artean, harpidetzak ordaindu arren ezin izan dutelako online aritu jolasean. Bakoitzak ahal duen modura kudeatzen du frustrazioa eta haur estatubatuar batek, bi egun bideo-jokoetara konektatu ezinik eman ondoren, larrialdi bat zuela ondorioztatu zuen. Hartara, larrialdien telefonora deitu zuen, Sony plataformarekin gertatzen ari zenaz zer edo zer ba ote zekiten galdetuz. Telefonoa hartu zionak hori larrialdi bat ez zela esan eta aholku bat eman zion: «Atera zaitez kalera edo irakur ezazu liburu bat».

> Miss Tanguita

Kolonbian hautsak harrotu ditu “Miss Tanguita” izeneko edertasun lehiaketak. Parte hartzaileek 10 urtetik behera dituzte eta bikinian desfilatzen dute mila-ka pertsonaren aurrean. Barbo- sa izeneko herrian tradizioa da dagoeneko aipatu lehiaketa eta badira 25 urte ospatzen dutela. Bogotan, ordea, beste ikuspuntu batetik ikusten dute; neskatoen eskubideen kontrako ekimena dela salatu dute eta bertan behera uzteko eskatu. ICBF erakundeak, haurren eskubideak babesteaz arduratzen denak, lehiaketa ikertuko duela iragarri du, berriro ez dadin antolatu. Gainera, haurren eskubideak urratu direla frogatzen bada antolatzaileen eta neskatoen gurasoen kontra egingo duela esan du.

> Re-Timer

Europarren herenak ez du nahikoa lo egiten. Horrek, luzera, loaren nahasteak eta osasun arazo larriagoak sor ditzake, adituek abisu eman dutenez. Arazoaren oinarrian, batez ere, gaueko lanaldiak eta ordutegiaren desfaseak daude. Leon Lack psikologo australiarrek Re-Timer izeneko gailuarekin konponbidea topatu duela uste du. Betaurrekoak balira bezala erabiltzen dia. Betaurreko horiek argi urdin bat eta berde bat bidaltzen dituzte begietara. Era horretan, loaz arduratzen den burmuinaren partea estimulatu- tzen da eta gure gorputza en- gainatzea lortzen da. Eta argia- ren terapia horiekin gure gorputzaren erritmo biologikoa orekatzea lortzen da. Betaurre- ko berezi hauk 200 bat euroko kostua daukate.



KUTXATEKA.COM

URTARRILAREN 20KO ARGAZKIA

Urtarrilak 20, San Sebastian eguna. Donostiako Alderdi Eder inguruak urtero antzeko soinekoa janzten du egun horretan. Pentsa, argazkia 1967koa da. Milaka haur beren txanda noiz iritsiko zain. Desfileak badauka militarretik, ilarak zuzen marraztu beharra, pausoa denek batera eman beharra, tente joan beharra... horregatik gozatzen dugu haur bat ilaratik ateratzen denean, txapela lurrera erortzen zaionean edo jende artean dauden izeba eta osaba agurtzearren atzean geratzen denean. Festa baimenik gabe desfilean sartzen denean. **Paco MARI. MARIN FUNTSA. KUTXA FOTOTEKA**

Ana Arruarte Lasa
UPV/EHUko Informatika Fakultateko irakaslea



MOOCen bidez jakintza mokora

Urte gutxi baino ez dira joan, oraindik, MOOC (Massive Open On-line Courses; lineako ikastaro ireki masiboak) terminoa gurera heldu zenetik. Lineako ikastaro ireki masiboak Interneteko irakaskuntza irekiaren bilakaera dira.

Badirudi 2008. urtean aipatu zela lehenengoz MOOC terminoa, nahiz eta asko izan 2011. urtea jotzen dutenak teknikaren abiapuntutzat; urte horretan Stanford unibertsitateko bi irakaslek eskaini baitzuten estreinakoz MOOC ikastaro bat doako Coursera hezkuntza-plataforman garatua. Noiz sortu zen garbi ez badago ere, argi dagoena da teknika honi esker hamaika ezagutza arlotako milaka ikastaro eskaini zaizkiela dagoeneko milioika ikasleri amarauneko mundu birtualean zehar. Askok diote, gainera, 2014. urtea dela MOOC ikastaroen urtea, urteko lehen hamar hilabeteetan 75 miloi euro baino gehiago inbertitu baita ikastaroak sortu eta eskaintzen munduan ezagunenak diren Coursera, EDx eta Udacity bezalako MOOC hezkuntza-plataformetan.

Linean edo online izateaz gain, edozein MOOC ikastaroren ezaugarri nagusien artean honako hauek ere aipatuko genituzke: masiboak, irekiak, doakoak eta komunitatearen sostenguan oinarrituak izatea.

► Ikastaro bakoitzean oso ikasle kopuru handiak parte hartzen du, mugarik gabe pertsona guztiei zuzenduak direnez ez dago-eta inolako ikasle mugarik; hori da masibotasun ezaugarriaren arrazoi nagusia.

► Irekiak dira, beti ere erregistratutako bezeroentzat soilik, eta epe-muga jakin baten barruan. Behin epe-muga igarota ikastaroa itxi egiten da eta ez da atzigarri gertatzen.

► Filosofiaz doakoak dira eta, gehienetan, dohainik eskaintzen dira. Doakoa izateak badauka, ordea, ondorio garrantzitsu bat: izenemateak ugariak izan arren, uzte-tasak ere horrelakoxeak dira, oso altuak gehienetan –%90eko uzte tasa ohikotzat jotzen da ikastaro mota hauetan–. Ez zen, baina, hori gertatu UEUK eta Asmoz Fundazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, 2013. urtean, euskaraz lehenengoz, eskaini zuten Android programazioaren hastapenak ikasta-

roan, non uzte-tasa %73koa izan zen. Bestalde, aipatzekoa da doakotasunaren atzean badagoela diru-sarrera iturri bat baino gehiago. Batetik, ohikoa da parte-hartze edo gaintitze-ziurtagiriaren truke diru kantitate bat ordaintzea; bestetik, enpresek ere inbertitzen dute honelako ikastaroak eskaintzen dituzten erakundeetan, gerora ikasle onenen informazioa lortzeko asmoarekin.

► Komunitatearen sostenguan oinarritzen dira. Online hezkuntza tradizionalako errekurtso didaktikoez gain –testuak, bideoak, ariketa multzoak eta abar–, irakasle eta ikasleen arteko komunitate birtualak sortzeko tresnak eskaintzen dira.

Hasiera batean irakaslea, edo instituzioa, da ikastarorako materiala prestatu eta doan erregistratutako ikasleen eskura uzten duena. Alabaina, ez da irakaslea ebaluazio-prozesuaz arduratuko den kide bakarra. Ataza batzuen ebaluazioa modu partekatuan egiten da ikastaroan parte hartzen duten kideen artean. Noski, kide bakoitzak ez du gainerako kide guztien lan osoa gainbegiratu, kide batzuen lan jakin batzuk baizik.

Horrela, ikastaro bakoitzean ebaluazio-sare bat osatzen da, non ikastaroko kide guztiek hartzen baitute parte. Elkar-ebaluazio-

az gain, online irakaskuntza tradizionalako ebaluazio automatikoa ere presente dago ikastaro mota hauetan, non sistema gai den irakasleek garatutako hainbat ariketa automatikoki ebaluatzen ere; adibidez, test motako ariketak.


Baina ez dira, noski, dena abantailak MOOCen munduan. Nire kezka nagusia baino ez nuke aipatu nahi artikulu labur honetan: MOOCen atzean dauden interes ekonomiko indartsuak. Munduko edozein tokitara helduko da amarauneko munduko potentzia zehatz baten ikuspegitik sortutako edozein ikastaro, toki bakoitzaren hezkuntza, hizkuntza, kultura... bezalako berezitasunak kontuan hartu gabe. Teknologia dator oraingoan edozein ezagutza-arlotako edukiak munduko edozein txokotara zabaltzeko aukera eskaintzera. Norberaren esku geratzen da, orain, MOOC teknologia baliatuz hedatutako ikastaroe-tako ezagutza bereganatu nahi duen ala ez ikustea. •




MOOC, Massive Open On-line Courses, lineako ikastaro ireki masiboak. GAUR8

arkitektura / hezkuntza / teknologia

3 BEGIRADA:



GAUR8 *ireki gure leihoa*



5 0117

9